Astigarragako Udala

Siadeco
ikerketa aplikatua

Astigarragako etorkizuneko kontsumitzaileen **erosketa- eta kontsumo-ohituren eta -beharren azterketa**

2025eko otsaila

Astigarragako Udala

Aurkibidea

1. Planteamendua eta alderdi metodologikoak ..... 3.

1.1. Planteamendua ..... 4.
1.2. Alderdi metodologikoak ..... 5.

2. Astigarragaren ezaugarri soziodemografikoak eta sozioekonomikoak ..... 7.

2.1. Biztanleriaren bilakaera eta egitura ..... 8.
2.2. Biztanleriaren mugimendu naturala eta atzerriko biztanleria ..... 12.
2.3. Biztanleen ikasketa-maila ..... 15.
2.4. Biztanleen baliabide ekonomikoak: errenta pertsonala ..... 16.
2.5. Etxebizitzen bilakaera ..... 18.
2.6. Jarduera sozioekonomikoa ..... 22.
2.7. Merkataritza-establezimenduen bilakaera ..... 25.
2.8. Lan-merkatua ..... 27.

3. Astigarragako merkataritza eskaintzaren azterketa ..... 31.

3.1. Establezimenduen ezaugarri nagusiak ..... 32.
3.2. Establezimenduetako arduraduna eta pertsonala ..... 37.
3.3. Eskainitako zerbitzuak eta erabilitako baliabideak ..... 43.
3.4. Bezeroak eta salmentak ..... 49.
3.5. Konpetentzia eta hobekuntza-beharra ..... 57.
3.6. Deskontu-bonuak ..... 65.
3.7. Asoziazionismoa eta Astiko elkartearen balorazioa ..... 68.
3.8. Astigarragako merkataritza eta euskara ..... 72.
3.9. Astigarragako merkataritza sustatzeko merkatarien eskaerak eta proposamenak ..... 77.

4. Astigarragako 19 eta 44 urte bitarteko kontsumitzaileen erosketa ohiturak ..... 80.

4.1. Inkestatuen ezaugarri soziodemografikoak ..... 81.
4.2. Erosketa-ohiturak produktu-motaren arabera ..... 92.
4.3. Internet bidezko erosketa ..... 121.
4.4. Astigarragatik kanpo egiten den erosketa eta arrazoi nagusiak ..... 125.
4.5. Astigarragako merkataritzak eskaintzen dituen zerbitzuak ..... 135.
4.6. Astiko elkartea eta Guztion Azoka: ezagutza eta balorazioa ..... 140.
4.7. Astigarragan merkataritza sustatzeko herritarren eskaerak eta proposamenak ..... 146.

5. Astigarragako herritarren merkataritza-gastu potentziala ..... 150.

6. Astigarragako merkataritzak erakargarritasuna irabazteko proposamenak ..... 153.

Astigarragako Udala

1.
Planteamendua eta alderdi metodologikoak

1.1. Planteamendua

Astigarragako Udalak eskatuta, Astigarragako etorkizuneko kontsumitzaileen erosketa- eta kontsumo-ohituren eta -beharren azterketa egin du Siadeco Ikerketa Elkarteak, eta lan horren emaitza jasotzen du dokumentu honek.

Lan honen helburua Astigarragako 19-29 eta 30-44 urte bitarteko herritar gazteen erosketa-ohiturak eta -beharrak aztertzea izan da. Ondoren emaitza horiek herriko txikizkako merkataritza segmentu horrentzako erakargarriagoa izateko eta bertan gehiago erosteko, herriko merkataritzak osatu beharko lukeen eskaintza definitzen laguntzeko tresna izan daitezen, bai udalarentzat, baita sektorea osatzen duten txikizkako merkatarientzat ere.

Horretarako, bost zatitan egituratu da ikerketa hau:

- Lehenengo atalean Astigarragako datu soziodemografiko zein sozioekonomiko nagusiak azaltzen dira, bilakaera aztertuz.
- Bigarren atalak merkataritza-eskaintzari buruzko azterketa jasotzen du.
- Hirugarren atalak 19 eta 44 urte bitarteko herritarren kontsumo-ohituren azterketa jasotzen du, eta jarraian, laugarrenak, kontsumo horren gastu potentziala estimatzen da.
- Azkenik, bosgarren atalean merkataritza-sektorea erakargarriagoa izan dadin Astigarragan sustatu litezkeen proposamenak biltzen dira.

1.2. Alderdi metodologikoak

Azterketa hau zeharkako zein zuzeneko informazioarekin osatu da: EUSTAT eta Udalmap-eko informazioarekin osatu da lehenengo atala, datu soziodemografiko eta sozioekonomikoena; eta bi landa-lan burutu dira gainontzeko bi atalak osatzeko.

1. landa-lana: MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUEI EGINDAKO GALDETEGIA

Astigarragako merkataritza-establezimenduek eta bestelako zerbitzuetako establezimenduek osatu dute azterketaren unibertsoa: unibertso depuratua (behin betiko itxita dauden establezimenduak kenduta) 47 establezimendukoa da. Eskaintza aztertzeko landa-lanean 42 establezimendu elkarrizketatu dira, beraz, lortutako erantzun-maila % 89,4koa izan da.

Abiapuntuko unibertsoa	Betirako itxita	Unibertso depuratua	Azterketan parte hartzeari uko egin diote	Bestelako intzidentziak	Azterketa parte hartu dute	Erantzun-maila %
50	3	47	4	1	42	89,4

Horietatik, 17 dira elikagai-dendak, 14 bestelako merkataritza-establezimenduak, eta 11 bestelako zerbitzuak. Kokapenari dagokionez, 28k erdialdean dute lokala, 10ek Arrobitxulo-Aiotzategi inguruan, hau da, Urumea Berrin, eta beste lauk, Txalaka edo Bidebitarte industriaguneetan.

	Erdialdea (Galtzaur barne) Kop	Arrobitxulo-Aiotzategi (Urumea Berri) Kop	Besterik Kop	Guztira Kop
Elikagai establezimenduak	9	5	3	17
Bestelako merkataritza establezimenduak	10	3	1	14
Bestelako zerbitzuak	9	2	0	11
Guztira	28	10	4	42

2. landa-lana: 19 ETA 44 URTE BITARTEKO ASTIGARTARREI INKESTA

Kontsumitzaile gazteei dagokienez, 300 inkesta egin dira 19 eta 44 urte bitartekoen artean: horietatik 100, 19-29 adin-tartekoei; eta 200, 30-44 tartekoei. Laginaren datuak haztatu egin sexuaren eta adin-tartearen arabera, unibertsoak duen banaketa errealaren arabera.

	Lagina	Biztanleria	Errore-marjina (%95eko konfiantza mailarako)
19-29 urtekoak	100	649	±9,02
30-44 urtekoak	200	1.944	±6,56
Guztira	300	2.593	±5,32

2.

Astigarragaren ezaugarri soziodemografikoak eta sozioekonomikoak

2.1. Biztanleriaren bilakaera eta egitura

EUSTATen arabera, Astigarragak 7.623 biztanle zituen 2024an; hamar urtetan bi mila biztanletik gora irabazi ditu –2014an, 5.564 biztanle zituen–.

1. grafikoa. Astigarragako biztanleriaren 2004-2024 bilakaera |



Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika.

Azken hogei urteetan, 2004 eta 2024 bitarte, % 89,3 hazi da Astigarragako biztanleria; bere inguruko erreferentziazko eremuek baino hazkunde handiagoa izan du: % 15,1 hazi da Beterri-Buruntzako biztanleria tarte horretan, % 6,1 Gipuzkoakoa; % 5,4 EAEkoa; eta % 4,9 Donostialdekoa. Igoera hori, batez ere, azken bost urteetan gertatu da: ia laurden bat biztanle irabazi ditu Astigarragak –2019an 6.180 izatetik, 2024an 7.623 izatera–.

2. grafikoa. Astigarragako, Beterri-Buruntzako, Donostialdeko, Gipuzkoako eta EAEko biztanleria-hazkundeak (%) 2024 |



Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika.

1. taula. Astigarragako, Beterri-Buruntzako, Donostialdeko, Gipuzkoako eta EAEko biztanleriaren bilakaera eta biztanleria-hazkundeak (%) (2004-2024).

	2004	2009		2014		2019		2024		Hazkundea 2004-2024
	Biztanleria	Biztanleria	Hazkundea 2004-2009	Biztanleria	Hazkundea 2009-2014	Biztanleria	Hazkundea 2014-2019	Biztanleria	Hazkundea 2019-2024	
Euskal AE	2.095.014	2.162.953	3,2	2.172.877	0,5	2.188.017	0,7	2.208.007	0,9	5,4
Gipuzkoa	681.305	698.267	2,5	708.631	1,5	717.197	1,2	722.824	0,8	6,1
Donostialdea	315.664	321.061	1,7	323.836	0,9	327.428	1,1	331.118	1,1	4,9
Beterri-Buruntza	65.315	68.390	4,7	71.152	4,0	72.471	1,9	75.203	3,8	15,1
Astigarraga	4.028	4.640	15,2	5.564	19,9	6.180	11,1	7.623	23,3	89,3

Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika.

Generoaren arabera, Astigarragako biztanleriaren % 50,6 gizonezkoa da, eta % 49,4, emakumezkoa.

3. grafikoa. Astigarragako biztanleria generoaren arabera 2024 |



Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika, 2024.

Astigarragako 2024ko adin-piramidea herriaren biztanleriaren bilakaeraren emaitza da: zahartze-prozesua eta azken urteotako jaiotza-tasa altua islatzen ditu.

4. grafikoa. Astigarragako adin-piramidea 2024 |



Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika, 2024.

Egitura demografikoaren adierazleek ere adin-piramideak islatzen duena argi erakusten dute.

- **Mendekotasun demografikoko indizeak**[1] gorakada handia izan du azken 20 urteetan: 2004an % 46,05ekoa zen, eta 2024an, aldiz, % 60,99koa da. Horrek esan nahi du mendekotasun-adinean dauden biztanleek "ekonomikoki produktiboak" diren biztanleen gainean duten zama areagotu egin dela nabarmen. Astigarragari dagokion indizea Gipuzkoako datuaren (% 73,07) eta EAEkoaren (% 71,46) azpitik dago.

- **Haurren indizeari**[2] dagokionean, 2024an % 19,64koa izan da; zifra altua da bilakaera aztertuta, baina ez da azken 20 urteetako altuena: 2019an altuagoa zen, % 20,19koa. 2024ko datuak alderatuta, 0 eta 14 urte bitartekoen pisua nabarmen altuagoa da Astigarragan Gipuzkoan (% 12,99) eta EAEn (% 12,60) baino.

- Astigarragaren kasuan baxuagoa da **zahartze-indizea**[3] haurren indizea baino: 2024an % 13,28koa da 65 urtetik gorakoen ehunekoa. Eta ildo beretik, txikia da, baita ere, **gainzahartze-indizea**[4]: % 5,63koa. Hala ere, bi indizeak azken 20 urteetako altuenak dira Astigarragan. Gipuzkoako eta EAEko proportzioekin alderatuta, nabarmen baxuagoak dira: Gipuzkoan % 23,82k du 65 urte baino gehiago eta EAEn % 23,96k; eta 75 urtetik gorako biztanleak % 12,19 eta % 12,18 dira, hurrenez hurren.

[1] **Mendekotasun demografikoko indizea (%):** Mendekotasunezko adinetan (0 eta 19 urte bitartean eta 65 urtetik gorakoak) dauden pertsonen kopuruaren eta "ekonomikoki produktiboak" (20 eta 64 urte bitartekoak) direnen arteko harremana.

[2] **Haur indizea: 0-14 urte arteko biztanleak (%):** 0 eta 14 urte bitarteko bizilagunen ehunekoa, udalerriko biztanleria osoarekin alderatuta.

[3] **Zahartze-indizea: 65 urte eta gehiagoko biztanleak (%):** 65 urte eta gehiagoko bizilagunen ehunekoa, udalerriko biztanleria osoarekin alderatuta.

[4] **Gainzahartze-indizea:75 urte eta gehiagoko biztanleak(%):** 75 urte eta gehiagoko bizilagunen ehunekoa, udalerriko biztanleria osoarekin alderatuta.

5. grafikoa. Astigarragako biztanleria-indizeen 2004-2024 bilakaera |



Iturria: Udalmap.

6. grafikoa. Astigarragako, Gipuzkoako eta EAEko 2024ko biztanleria-indizeak (%) |



Iturria: Udalmap, 2024.

2.2. Biztanleriaren mugimendu naturala eta atzerriko biztanleria

Astigarragako biztanleria-mugimenduaren adierazleen azken 20 urteko bilakaera aztertu da, baita ere:

- **Jaiotza-tasa gordinari**[5] dagokionez, 2024an ‰ 10,55ekoa izan zen, azken 20 urteetako baxuena –2004an ‰ 19,83koa zen–. Horrek esan nahi du 2004an bizirik jaiotako haurrek ekarpen handiagoa egiten ziotela Astigarragako biztanle-kopuruaren hazkundeari 2024an baino. Hala ere, bertan jaiotako haurrek egindako ekarpen hori apalagoa da Gipuzkoan (‰ 6,33) eta EAEn(‰ 6,11).
- Astigarragako **hazkunde begetatiboko tasa**[6] positiboa izan da azken 20 urteetan, eta hala izan da 2024an ere: 2004an ‰ 13,95ekoa zen, eta 2024an ‰ 5,15ekoa izan da. Hala ere, jaitsiera nabarmena izan du, eta 0tik gero eta gertuago dago; oraindik ere herritar gehiago jaiotzen dira Astigarragan hiltzen direnak baino. Negatiboan daude, ordea, Gipuzkoako zein EAEko hazkunde begetatiboko tasak: -‰ 4,08 eta -‰ 4,02, hurrenez hurren.

7. grafikoa. Astigarragako jaiotza-tasaren eta hazkunde begetatiboaren 2004-2024 bilakaera |



Iturria: Udalmap.

[5] **Jaiotza-tasa gordina (‰):** Urtean bizirik jaioen eta udalerriko batez besteko biztanle-kopuruaren arteko harremana, 1.000 biztanleko. Hau da, zera neurtzen du: jaiotza-tasak biztanleriaren hazkundean egiten duen ekarpena.

[6] **Hazkunde begetatiboko tasa (‰):** Bizirik jaioen eta hildakoen arteko aldearen ondorioz gertatzen den udalerriko biztanleria-hazkunde edo -murrizketa, 1.000 biztanleko.

8. grafikoa. Astigarragako, Gipuzkoako eta EAEko jaiotza-tasa eta hazkunde-begetatiboa (‰) |



Iturria: Udalmap.

Atzerrian jaiotako biztanleriari dagokionez, 2024an Astigarragako biztanleen % 9,6 atzerrian jaiotakoa da; 2004an baino bost puntu gehiago da (% 4,5). Erreferentzia gisa hartu diren gainontzeko eremutan baino txikiagoa da ehuneko hori: Beterri-Buruntzan biztanleriaren % 11,8 da atzerrian jaiotakoa; Donostialdean, % 13,6; Gipuzkoan, % 13,4; eta Euskal Autonomia Erkidegoan, % 13,5.

Estatuko beste probintzietan jaio eta Astigarragan bizi direnek, aldiz, azken 20 urteetako pisurik txikiena dute: % 9,4 –% 13,6koa zuten 2004an–. Portzentaje hori gainontzeko eremuetakoa baino txikiagoa da, baita ere: % 15,9 dira Beterri-Buruntzan; % 15,1 Donostialdean; % 13,4 Gipuzkoan; eta % 16 EAEn.

9. grafikoa. Astigarragako atzerrian eta Estatuko beste probintzietan jaiotako biztanleriaren 2004-2024 bilakaera (%) |



Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika.

10. grafikoa. Astigarragako, Beterri-Buruntzako, Donostialdeko, Gipuzkoako eta EAEko atzerrian eta Estatuko beste probintzietan jaiotako biztanleria (%) 2024 |



Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika.

2. taula. Astigarragako biztanleriaren bilakaera, jaiotze-lekuaren arabera, 2004-2024.

	2004		2009		2014		2019		2024	
	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%
EAE guztira	3.300	81,9	3.780	81,5	4.475	80,4	5.091	82,4	6.175	81,0
Araba	9	0,2	12	0,3	19	0,3	29	0,5	28	0,4
Bizkaia	46	1,1	60	1,3	59	1,1	87	1,4	97	1,3
Gipuzkoa	3.245	80,6	3.708	79,9	4.397	79,0	4.975	80,5	6.050	79,4
Estatuko beste probintziak	548	13,6	555	12,0	612	11,0	639	10,3	714	9,4
Atzerria	180	4,5	305	6,6	477	8,6	450	7,3	734	9,6
Guztira	4.028	100,0	4.640	100,0	5.564	100,0	6.180	100,0	7.623	100,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika.

3. taula. Astigarragako, Beterri-Buruntzako, Donostialdeko, Gipuzkoako eta EAEko biztanleria, jaiotze-lekuaren arabera, 2024.

	EAE		Gipuzkoa		Donostialdea		Beterri-Buruntza		Astigarraga	
	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%	Biztanleak	%
EAE guztira	1.556.295	70,5	529.142	73,2	236.171	71,3	54.344	72,3	6.175	81,0
Araba	195.794	8,9	6.344	0,9	1.613	0,5	260	0,3	28	0,4
Bizkaia	823.713	37,3	13.886	1,9	5.074	1,5	810	1,1	97	1,3
Gipuzkoa	536.788	24,3	508.912	70,4	229.484	69,3	53.274	70,8	6.050	79,4
Estatuko beste probintziak	353.290	16,0	96.973	13,4	49.932	15,1	11.993	15,9	714	9,4
Atzerria	298.422	13,5	96.709	13,4	45.015	13,6	8.866	11,8	734	9,6
Guztira	2.208.007	100,0	722.824	100,0	331.118	100,0	75.203	100,0	7.623	100,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika.

2.3. Biztanleen ikasketa-maila

Astigarragako herritarren ikasketa-mailari erreparatuz gero, EUSTATen datuen arabera, 2021ean biztanleen ia erdiak bigarren mailako ikasketak zituen –Lanbide Heziketa barne– (% 46,4), % 29,2k erdi- eta goi-mailako ikasketak, eta ia laurden batek lehen mailakoak edo baxuagoak (% 24,4) –beste eremuekin alderatuta, pisua baxuagoa da–.

2010 eta 2021 arteko joera aztertuz gero, lehen mailako ikasketak edo baxuagoak zituztenen pisua nabarmen jaitsi da (% 37,2tik % 24,4ra), eta aldiz, igo egin da erdi- eta goi-mailako ikasketak dituztenen proportzioa (% 20,7tik % 24,4ra).

11. grafikoa. Astigarragako biztanleriaren ikasketa-mailaren 2010-2021 bilakaera (%) |



Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko udal estatistika.

12. grafikoa. Astigarragako, Gipuzkoako eta EAEko biztanleriaren ikasketa-maila (%) 2021 |



Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko udal estatistika.

2.4. Biztanleen baliabide ekonomikoak: errenta pertsonala

Astigarragako biztanleen baliabide ekonomikoei dagokienez, datuek erakusten dute errenta pertsonalak nabarmen egin duela gora 2009 eta 2022 artean, eta gehiago, emakumezkoen kasuan. Errenta pertsonal osoa orokorrean 19.646 eurokoa izatetik 28.047 eurokoa izatera pasa da, hau da, % 42,8ko igoera izan du. Emakumezkoen kasuan, % 58,4 igo da; eta gizonezkoenean, aldiz, % 33,5.

Astigarragako 2022ko errenta pertsonala altuagoa zen Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino, bai emakumezkoen, eta bai gizonezkoen kasuan.

13. grafikoa. Astigarragako errenta pertsonalaren bilakaera, generoaren arabera (€) 2009-2022 |



Iturria: Udalmap.

14. grafikoa. Astigarragako, Gipuzkoako eta EAEko errenta pertsonala, generoaren arabera (€) 2022 |



Iturria: Udalmap.

4. taula. Astigarragako errenta pertsonalaren bilakaera, generoaren arabera (2009-2022).

	2009 (€)	**2014** (€)	Hazkundea 2009-2014 (%)	**2019** (€)	Hazkundea 2014-2019 (%)	**2022** (€)	Hazkundea 2019-2022 (%)	Hazkundea 2009-2022 (%)
Emakumezkoak[7]	14.103	17.562	24,5	20.325	15,7	22.333	9,9	58,4
Gizonezkoak[8]	25.168	24.736	-1,7	30.374	22,8	33.604	10,6	33,5
Errenta pertsonal osoa[9]	19.646	21.193	7,9	25.380	19,8	28.047	10,5	42,8

Iturria: Udalmap.

5. taula. Astigarragako, Gipuzkoako eta EAEko errenta pertsonala (2022).

	EAE	Gipuzkoa	Astigarraga
Emakumezkoak	20.180	21.474	22.333
Gizonezkoak	30.356	32.165	33.604
Errenta pertsonal osoa	25.061	26.639	28.047

Iturria: Udalmap.

7 **Errenta pertsonal osoa. Emakumeak** (€): Emakumeen errenta pertsonal osoaren eta 18 urtetik gorako emakumeen arteko kozientea.

8 **Errenta pertsonal osoa. Gizonak** (€): Gizonen errenta pertsonal osoaren eta 18 urtetik gorako gizonen arteko kozientea.

9 **Errenta pertsonal osoa** (€): Errenta pertsonal osoaren eta 18 urtetik gorako biztanleriaren arteko kozientea.

2.5. Etxebizitzen bilakaera

Astigarragako etxebizitzen inguruko datuak aztertuta, 2010 eta 2023 artean familia-etxebizitzen parkea nabarmen areagotu da: etxebizitza-kopuruak % 72,3 egin du gora, 1.951 izatetik 3.361 izatera pasa dira. Horietatik, 3.041 ohiko etxebizitza da, eta 320, aldiz, bestelako etxebizitza-mota (bigarren etxebizitza, hutsa, etab.). Bereziki ohiko etxebizitza gisa erabiltzen direnak areagotu dira: 1.694 ziren 2010ean, eta 3.041, 2023an.

15. grafikoa. Astigarragako familia-etxebizitza parkearen 2010-2023 bilakaera |



Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzen errolda.

6. taula. Astigarragako familia-etxebizitza parkearen bilakaera, 2010-2023.

	2010	2014		2019		2023		Hazkundea 2010-2023
	Kopurua	Kopurua	Hazkundea 2010-2014	Kopurua	Hazkundea 2014-2019	Kopurua	Hazkundea 2019-2023	
Etxebizitza nagusia	1.694	2.108	24,4	2.549	20,9	3.041	19,3	79,5
Gainerakoak	257	278	8,2	364	30,9	320	-12,1	24,5
Familia-etxebizitzak	1.951	2.386	22,3	2.913	22,1	3.361	15,4	72,3

Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzen errolda.

7. taula. Astigarragako, Beterri-Buruntzako, Donostialdeko, Gipuzkoako eta EAEko familia-etxebizitza parkearen bilakaera, 2010-2023.

		2010	2014		2019		2023		Hazkundea 2010-2023
		Kopurua	Kopurua	Hazkundea 2010-2014	Kopurua	Hazkundea 2014-2019	Kopurua	Hazkundea 2019-2023	
Euskal AE	Etxebizitza nagusia	843.321	876.774	4,0	903.758	3,1	925.373	2,4	9,7
	Gainerakoak	161.419	155.586	-3,6	155.708	0,1	155.209	-0,3	-3,8
	Familia-etxebizitzak	1.004.740	1.032.360	2,7	1.059.466	2,6	1.080.582	2,0	7,5
Gipuzkoa	Etxebizitza nagusia	271.356	285.083	5,1	293.284	2,9	300.696	2,5	10,8
	Gainerakoak	57.200	51.043	-10,8	52.040	2,0	50.858	-2,3	-11,1
	Familia-etxebizitzak	328.556	336.126	2,3	345.324	2,7	351.554	1,8	7,0
Donostialdea	Etxebizitza nagusia	127.190	132.478	4,2	136.374	2,9	140.251	2,8	10,3
	Gainerakoak	21.864	20.196	-7,6	21.348	5,7	21.513	0,8	-1,6
	Familia-etxebizitzak	149.054	152.674	2,4	157.722	3,3	161.764	2,6	8,5
Beterri-Buruntza	Etxebizitza nagusia	26.250	27.732	5,6	29.129	5,0	30.617	5,1	16,6
	Gainerakoak	3.631	3.134	-13,7	3.334	6,4	3.123	-6,3	-14,0
	Familia-etxebizitzak	29.881	30.866	3,3	32.463	5,2	33.740	3,9	12,9
Astigarraga	Etxebizitza nagusia	1.694	2.108	24,4	2.549	20,9	3.041	19,3	79,5
	Gainerakoak	257	278	8,2	364	30,9	320	-12,1	24,5
	Familia-etxebizitzak	1.951	2.386	22,3	2.913	22,1	3.361	15,4	72,3

Eustat. Biztanleriaren eta etxebizitzen errolda.

Astigarragako familia-etxebizitzen batez besteko antzinatasuna[10] 30,4 urtekoa zen 2023an, azken hamar urteko baxuena eta Gipuzkoako (49,1 urte) eta EAEko (48,7) etxebizitzen batez bestekoen azpitik.

Astigarragako etxebizitza horietatik % 16,55ek 50 urte baino gehiago zituen 2022an[11]. EAEko eta Gipuzkoako 50 urte baino gehiago dituzten etxebizitzekin alderatuta, Astigarragakoa oso proportzio txikia da: EAEko etxebizitzen % 44,47k ditu 50 urtetik gora, eta Gipuzkoakoen % 43,58k.

16. grafikoa. Astigarragako familia-etxebizitzen antzinatasunaren bilakaera 2010-2023 |



Iturria: Udalmap.

17. grafikoa. Astigarragako, Gipuzkoako eta EAEko familia-etxebizitzen antzinatasuna (%) |



Iturria: Udalmap.

[10] **Familia etxebizitzak batez besteko antzinatasuna**: Familia etxebizitzak batez besteko urte kopurua.

[11] **50 urtetik gorako antzinatasuna daukaten familia-etxebizitzak (%):** 50 urtetik gorako antzinatasuna daukaten familia-etxebizitzen ehunekoa, udalerriko familia-etxebizitzen kopuru osoarekin alderatuta.

2023ko datuen arabera, azken bost urteetan Astigarragan ‰ 20,15 baimen eman ziren etxebizitza berriak egiteko[12] – aldi berean, Gipuzkoan ‰ 9,67koa da 2023ko datua, eta EAEn, ‰ 10,35ekoa–. Beste aldean, 2009an ‰ 110,70ekoa zen Astigarragako datua.

Eraikitako babes ofizialeko etxebizitzen kasuan[13], aldeak ez dira hain handiak: 2022ko datuen arabera, biztanleko ‰ 3,02 etxebizitza eraiki ziren azken bost urteetan, Gipuzkoan ‰ 1,59 eta EAEn, ‰ 2,44. Astigarragako daturik nabarmenena 2014koa da; orduan amaitu zen babes ofizialeko etxebizitza gehien mila biztanleko: ‰ 24,37.

18. grafikoa. Azken bost urteetan etxebizitza berriak egiteko emandako baimenak, eta azken bost urteetan amaitu diren etxebizitza babestuak 2010-2023 |



Iturria: Udalmap.

19. grafikoa. Astigarragan, Gipuzkoan eta EAEn azken bost urteetan etxebizitza berriak egiteko emandako baimenak, eta azken bost urteetan amaitu diren etxebizitza babestuak (‰ biztanle) |



Iturria: Udalmap.

[12] **Azken bost urteetan etxebizitza berriak egiteko emandako baimenak (‰ biztanle):** Azken bost urteetan etxebizitza berriak egiteko udalerrian eman diren baimenak, 1.000 biztanle bakoitzeko.

[13] **Azken bost urteetan amaitu diren etxebizitza babestuak (BOE) (‰ biztanle):** Azken bost urteetan amaitu diren etxebizitza babestuak, 1.000 biztanle bakoitzeko

2.6. Jarduera sozioekonomikoa

Astigarragako ehun ekonomikoa aztertzeko bi adierazle alderatu dira: batetik, udalerriko establezimenduen jarduera-sektorearen araberako pisua, eta bestetik, udalerriaren Balio Erantsi Gordinean sektore bakoitzak duen pisua.

Astigarragako establezimendu guztiak aztertuz gero, ia bi heren zerbitzu-enpresak dira (% 65,7). Bigarren dago industria (establezimenduen % 16,8 hartzen du), eraikuntza gero (% 14,7), eta azkenik, lehen sektorea (% 2,8). Bilakaerari dagokionez, banaketa hau ia berbera da 2010etik.

8. taula. Jarduera-sektore nagusietako establezimenduen ehunekoa (%).

Urtea	Lehen sektorea	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	GUZTIRA
2023	2,8	16,8	14,7	65,7	100,0
2021	2,8	17,2	15,3	64,8	100,0
2019	2,7	18,8	14,5	64,0	100,0
2015	3,5	20,4	14,1	62,1	100,0
2010	-	21,5	16,5	62,0	100,0

Iturria: Udalmap. Siadecok landua.

2021eko datuen arabera, Astigarragan jarduera-sektore ezberdinetako establezimenduen pisua[14] nahiko bat dator Balio Erantsi Gordinari egiten dioten ekarpenarekin. Hala ere, 2010etik aldaketak izan dira: zerbitzuen sektoreko establezimenduek BEGari egiten zioten ekarpenak nabarmen egin du gora –herrian sektoreak duen pisuak baino gehiago–; eta industria- eta eraikuntza-sektoreek BEGean duten pisuak, aldiz, behera egin du, batez ere eraikuntzaren kasuan.

Eraikuntza-sektorearen Balio Erantsi Gordina Gipuzkoakoa eta EAEkoa baino altuagoa da; eta industriarena, aldiz, zertxobait baxuagoa –batez ere Gipuzkoakoarekiko–.

[14] **Nekazaritza eta arrantza sektorearen balio erantsi gordina (%):** Udalerriko Balio Erantsi Gordin (BEG) osoaren barruan, nekazaritza eta arrantza sektoreak sortutako BEGak duen partaidetza, ehunekotan.

Industri sektorearen balio erantsi gordina (%): Udalerriko Balio Erantsi Gordin (BEG) osoaren barruan, industri sektoreak (energia sektorea kanpo) sortutako BEGak duen partaidetza, ehunekotan.

Eraikuntza sektorearen balio erantsi gordina (%): Udalerriko Balio Erantsi Gordin (BEG) osoaren barruan, eraikuntza sektoreak sortutako BEGak duen partaidetza, ehunekotan.

Zerbitzuen sektorearen Balio Erantsi Gordina (%): Udalerriko Balio Erantsi Gordin (BEG) osoaren barruan, zerbitzuen sektoreak sortutako BEGak duen partaidetza, ehunekotan.

20. grafikoa. Astigarragako jarduera-sektoreen Balio Erantsi Gordinaren bilakaera 2010-2021 |



Iturria: EUSTAT. Hezkuntzari buruzko udal estatistika.

21. grafikoa. Astigarragako, Gipuzkoako eta EAEko jarduera-sektoreen Balio Erantsi Gordina (%) 2021 |



Iturria: Udalmap.

Astigarragako establezimenduek 2021ean sortu zuten Balio Erantsi Gordin osoa 288,5 milioi eurokoa da: zatirik handiena zerbitzuei dagokie (192,5 milioi euro); bigarren dago industria eta energia (55,1 milioi euro); segidan, eraikuntza (40,1 milioi euro); eta lehen sektoreak egiten du ekarpenik apalena (863 mila euro).

Zerbitzuen kasuan, sektore horren BEGa horrela banatzen da: merkataritzari, ostalaritzari eta garraioari dagozkion 111,5 milioi euro (BEG osoaren % 38,7); gainerako zerbitzuen 68,9 milioi euro (% 23,9); eta herri-administrazioaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte zerbitzuetako jardueren 12,0 milioi euro (% 4,2).

9. taula. Astigarragako, Beterri-Buruntzako, Donostialdeako, Gipuzkoako eta EAEko BEGren banaketa, jarduera-sektorearen arabera (mila euro eta %).

Jarduera-sektorea		EAE	Gipuzkoa	Donostialdea	Beterri-Buruntza	Astigarraga
NEKAZARITZA, ABELTZAINTZA, ARRANTZA	Prezio arruntak (mila eurotan)	587.722 €	148.762 €	21.169 €	7.567 €	863 €
	Udalerriko BEGd osoaren gaineko ehunekoa (%)	0,8	0,6	0,2	0,3	0,3
INDUSTRIA ETA ENERGIA	Prezio arruntak (mila eurotan)	16.339.514 €	6.514.729 €	1.723.890 €	903.314 €	55.112 €
	Udalerriko BEGd osoaren gaineko ehunekoa (%)	23,3	27,9	15,5	37,4	19,1
Manufaktura-industria	Prezio arruntak (mila eurotan)	14.584.881 €	5.928.310 €	1.464.061 €	782.964 €	52.570 €
	Udalerriko BEGd osoaren gaineko ehunekoa (%)	20,8	25,4	13,2	32,4	18,2
ERAIKUNTZA	Prezio arruntak (mila eurotan)	3.662.354 €	1.290.093 €	589.397 €	148.424 €	40.077 €
	Udalerriko BEGd osoaren gaineko ehunekoa (%)	5,2	5,5	5,3	6,2	13,9
ZERBITZUAK	Prezio arruntak (mila eurotan)	49.407.158 €	15.394.564 €	8.798.766 €	1.353.698 €	192.492 €
	Udalerriko BEGd osoaren gaineko ehunekoa (%)	70,6	65,9	79,0	56,1	66,7
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	Prezio arruntak (mila eurotan)	14.118.141 €	4.517.724 €	2.345.339 €	549.123 €	111.536 €
	Udalerriko BEGd osoaren gaineko ehunekoa (%)	20,2	19,3	21,1	22,8	38,7
Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	Prezio arruntak (mila eurotan)	12.666.057 €	4.176.371 €	2.426.682 €	259.436 €	12.015 €
	Udalerriko BEGd osoaren gaineko ehunekoa (%)	18,1	17,9	21,8	10,8	4,2
Gainerako zerbitzuak	Prezio arruntak (mila eurotan)	22.622.960 €	6.700.469 €	4.026.745 €	545.139 €	68.941 €
	Udalerriko BEGd osoaren gaineko ehunekoa (%)	32,3	28,7	36,2	22,6	23,9
GUZTIRA	Prezio arruntak (mila eurotan)	69.996.748 €	23.348.148 €	11.133.222 €	2.413.003 €	288.544 €
	Udalerriko BEGd osoaren gaineko ehunekoa (%)	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT. Udal barne produktu gordina (BPG)

2.7. Merkataritza-establezimenduen bilakaera

EUSTATen 2024ko datuen arabera, 47 merkataritza-establezimendu daude Astigarragan. Multzorik handiena elikagai-dendei dagokie –13 dira–, eta ondoren daude espezializatu gabeko establezimenduak eta bestelako artikulutan espezializatutakoak –10 establezimendu daude kategoria bakoitzean–. 6 establezimendu etxerako bestelako artikuluetan espezializatuta daude; beste 4k kultur eta aisialdirako artikuluak saltzen dituzte; bik informazioaren teknologiarako eta komunikaziorako ekipoak; eta azken biek, aldiz, automoziorako erregaiak.

Horrez gain, zerbitzuen sektorean, ileapaindegien eta edertasun-zentroen alorrak indar handia du herrian: 11 establezimendu daude mota honetakoak.

Bilakaera aztertuta, azken 15 urteetako establezimendu-kopururik altuena 2014an izan zuen Astigarragak: 62 merkataritza-establezimendu izatera iritsi zen. Ordutik, beherakada izan da: 11 establezimendu gutxiago zeuden 2019an, eta beste 4 gutxiago, 2024an. Batez ere, etxerako bestelako artikuluetan espezializatutako establezimenduetan izan da jaitsiera: 2009an 18 denda zeuden mota hauetakoak, eta 2024an, 6 besterik ez dira.

Ileapaindegien eta estetika-zentroen kasuan, 2009 eta 2014 artean bi establezimendu galdu ziren, eta kopurua mantendu egin da azken hamar urteetan.

22. grafikoa. Astigarragako txikizkako merkataritza-establezimenduak eta ile apainketa eta edertasun tratamendurako establezimenduak 2024 |



Iturria: JEGID-Eustat, 2024.

10. taula. Txikizkako merkataritza establezimenduen eta ile apainketak eta beste edertasun tratamenduko establezimenduen bilakaera.

	2009	2014	2019	2024	Hazkundea 2009-2024
Elikagai produktuetan, edaritan eta tabakoan espezializatutako establezimenduak	14	13	15	13	-7,1
Bestelako artikuluetan espezializatutako establezimenduak (jantzi-dendak, oinetako-dendak, lurrin-dendak, botika, bestelakoak...)	12	10	9	10	-16,7
Espezializatu gabeko establezimenduak (supermerkatu, bazar eta antzekoak)	8	10	8	10	25,0
Etxerako bestelako artikuluetan espezializatutako establezimenduak (burdindegiak, oihalak, altzariak...)	18	14	9	6	-66,7
Kultur eta aisialdirako artikuluetan espezializatutako establezimenduak (kirol-dendak, paper-dendak, liburu-dendak...)	5	7	4	4	-20,0
Automoziorako erregaietan espezializatutako establezimenduak	1	1	1	2	100,0
Informazioaren teknologiarako eta komunikaziorako ekipoetan espezializatutako establezimenduak	2	7	5	2	0,0
GUZTIRA MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUAK	60	62	51	47	-21,7
Ile apainketa eta beste edertasun tratamendu batzuk	13	11	11	11	-15,4
GUZTIRA ILE APAINKETA ETA EDERTASUN TRATAMENDU ESTABLEZIMENDUAK	13	11	11	11	-15,4
GUZTIRA MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUAK ETA ILE APAINKETA ETA EDERTASUN TRATAMENDU ESTABLEZIMENDUAK	73	73	62	58	-20,5

Iturria: JEGID-Eustat, 2024.

Merkataritza-dotazioari erreparatuz gero, Astigarragan mila biztanleko 6,17 merkataritza-establezimendu eta 1,44 ileapaindegi eta estetika-zentro daude. Bi kasutan bilakaera negatiboa izan da, jaitsiera progresibo baten emaitza: 2009an 12,93 merkataritza-denda zeuden mila biztanleko, eta 2,80 ileapaindegi eta estetika-zentro.

23. grafikoa. Astigarragako merkataritza-dotazioaren bilakaera (establezimenduak mila biztanleko) 2009-2024 |



Iturria: JEGID-Eustat, 2024. Siadecok landua.

2.8. Lan-merkatua

Astigarragako **biztanleen jarduera-tasa**[15] % 58,12koa da, hau da, biztanleria osoaren ehuneko hori da biztanleria aktiboa. Gizonezkoena zertxobait altuagoa da (% 58,83) emakumezkoena baino (% 57,39), baina aldeak asko murriztu dira azken hamar urteetan ia desagertzeraino: 2010ean zortzi puntu pasatxokoa zen aldea; 2015ean, lau puntukoa; eta 2019koa, bi puntukoa.

Astigarragako jarduera-tasaren datua altuagoa da Gipuzkoakoa (% 49,39) eta EAEkoa (% 49,26) baino. Horietan, gainera, genero-arrakala handiagoa da, 4 puntu ingurukoa.

24. grafikoa. Astigarragako biztanleriaren jarduera-tasaren bilakaera 2010-2023 |



Iturria: Udalmap.

25. grafikoa. Astigarragako, Gipuzkoako eta EAEko jarduera-tasa (%) 2023 |



Iturria: Udalmap.

[15] **Biztanleriaren jarduera-tasa (%):** Biztanleria aktiboaren (hau da, lanerako adinean dauden eta lanean edo lana bilatzen ari diren pertsonen) partaidetza, ehunekotan, biztanleria osoan.

Okupazio-tasari[16] dagokionez, 16 urtetik gorako biztanleen % 69,77 ari da lanean. Gizonezkoen artean lanean ari direnek pisu handiagoa dute emakumezkoen artean baino: gizonezkoen okupazio-tasa % 71,48koa da, eta emakumezkoena, aldiz, % 68,01ekoa. Kasu honetan ere, generoen arteko aldea pixkanaka jaisten ari da: 2011n 9,67 puntu altuagoa zen gizonezkoen okupazio-tasa, eta 2023an, 3,46 puntukoa da aldea.

Kasu honetan ere, Astigarragako datua Gipuzkoakoaren (% 53,37) eta EAEkoaren (% 52,46) gainetik dago, baita emakumezkoen eta gizonezkoen kasuan ere. Eta genero-arrakala txikiagoa du Astigarragak: Gipuzkoan aldea 6,94 puntukoa da, eta EAEn, altuagoa, 7,11koa.

26. grafikoa. Astigarragako biztanleriaren okupazio-tasaren bilakaera 2010-2023 |



Iturria: Udalmap.

27. grafikoa. Astigarragako, Gipuzkoako eta EAEko okupazio-tasa (%) 2023 |



Iturria: Udalmap.

[16] **16 urte eta gehiagoko biztanleriaren okupazio-tasa (%):** Lanean ari diren biztanleen partaidetza, ehunekotan, 16 eta gehiago biztanleria osoan.

Lanbideko 2023ko datuen arabera, Astigarragako 16 eta 64 urte artekoen % 4,46 langabea[17] da, eta % 2,07 luzaroko langabea. Era berean, 16 eta 24 urte bitarteko landunen tasa % 37,41ekoa da, hau da, adin-tarte horretako herena pasatxo lanean ari da. Generoen arteko aldea handitu egin da azken 4 urteetan: ia hiru puntuko aldea dago emakumezkoen langabezia-tasaren (% 5,94) eta gizonezkoen langabezia-tasaren (% 3,03) artean.

Astigarragako datuak hobeak dira Gipuzkoarekin eta EAErekin alderatuz gero: langabeen pisua txikiagoa da, eta gazte landunak gehiago dira.

28. grafikoa. Astigarragako biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, generoaren arabera 2010-2023 |



Iturria: Udalmap.

29. grafikoa. Astigarragako luzaroko langabetuen eta 16-24 urte arteko gazte landunen tasaren bilakaera 2010-2023 |



Iturria: Udalmap.

[17] **Lanbideen erregistratutako langabetuak (16-64 urte arteko biztanleen %):** Lanbide-en erregistratutako langabetu-kopurua, 16 eta 64 urte arteko 100 biztanle bakoitzeko.

Lanbideen erregistratutako luzaroko langabetuak (16-64 urte arteko biztanleen %): lanbideen erregistratuta dauden luzaroko langabetu-kopurua (hau da, 12 hilabete segidan baino luzaroago hala erregistraturik daudenak), 16 eta 64 urte arteko 100 biztanleko.

16-24 urte arteko gazte landunen tasa (%): Lanean ari diren 16 eta 24 urte arteko biztanleen partaidetza, ehunekotan, adin horretako biztanleria osoan

30. grafikoa. Astigarragako, Gipuzkoako eta EAEko okupazio-tasa 2023 |



Iturria: Udalmap.

3.

Astigarragako merkataritza eskaintzaren azterketa

3.1. Establezimenduen ezaugarri nagusiak

Izaera juridikoa

Astigarragan bisitatu diren merkataritza-establezimenduen bi heren pertsona fisikoak (autonomoak) dira (% 66,7) –gehiago erdialdean kokatutakoen artean, % 82,1–. Laurden bat sozietate mugatua da (% 26,2) –gehiago elikagaien establezimenduen kasuan, % 47,1–, eta gutxiago dira ondasun-erkidegoak (% 4,8) eta kooperatibak (% 2,4).

31. grafikoa. Negozioaren izaera juridikoa (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

11. taula. Negozioaren izaera juridikoa, establezimenduaren jarduera-sektorea eta kokatzen den zonaldearen arabera.

	Jarduera-sektorea				Zonaldea			Guztira	
	Elikagaiak	Bestelako merkataritza	GUZTIRA TXIKIZKAKO MERKATARITZA	BESTELAKO ZERBITZUAK	ERDIALDEA	URUMEA BERRI	BESTERIK		
	%	%	%	%	%	%	%	Kop	%
Pertsona fisikoa (autonomoa)	47,1	64,3	54,8	100,0	82,1	50,0	0,0	28	66,7
Sozietate Mugatua	47,1	21,4	35,5	0,0	7,1	50,0	100,0	11	26,2
Ondasun Erkidegoa	5,9	7,1	6,5	0,0	7,1	0,0	0,0	2	4,8
Kooperatiba	0,0	7,1	3,2	0,0	3,6	0,0	0,0	1	2,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	42	100,0
N	17	14	31	11	28	10	4	42	

Iturria: Siadeco, 2024.

Antzinatasuna

Inkestatutako elikagai-establezimenduak berriagoak dira bestelako merkataritza- eta zerbitzu-establezimenduak baino: hamarretik zazpik hamar urte baino gutxiago daramatza Astigarragan (% 70,5). Auzoa berria dela-eta, Arrobitxulo-Aiotzategiko establezimendu guztiek dituzte hamar urte baino gutxiago; bostetik bik bi urte baino gutxiago daramatza herrian. Batez beste zonalde horretako establezimenduek 3,10 urte dituzte, eta erdialdeko establezimenduek, aldiz, 17,64 urte.

Astigarragako txikizkako merkataritzako establezimenduek batez beste 11,58 urte daramatzate irekita.

Datu hori 2014koaren azpitik dago, orduan 25,91 urte zeramatzaten zabalik, batez beste.

32. grafikoa. Establezimenduaren antzinatasuna (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

33. grafikoa. Establezimenduen batez besteko antzinatasuna (urte) |



Iturria: Siadeco, 2024.

12. taula. Establezimenduaren antzinatasuna, establezimenduaren jarduera-sektorea eta kokatzen den zonaldearen arabera.

	Jarduera-sektorea				Zonaldea			Guztira	
	Elikagaiak	Bestelako merkataritza	GUZTIRA TXIKIZKAKO MERKATARITZA	BESTELAKO ZERBITZUAK	ERDIALDEA	URUMEA BERRI	BESTERIK		
	%	%	%	%	%	%	%	Kop	%
< 2 urte	23,5	14,3	19,4	0,0	7,1	40,0	0,0	6	14,3
2-4 urte	17,6	28,6	22,6	18,2	14,3	20,0	75,0	9	21,4
5-10 urte	29,4	7,1	19,4	18,2	10,7	40,0	25,0	8	19,0
11-20 urte	11,8	7,1	9,7	27,3	21,4	0,0	0,0	6	14,3
21-30 urte	17,6	28,6	22,6	27,3	35,7	0,0	0,0	10	23,8
>30 urte	0,0	14,3	6,5	9,1	10,7	0,0	0,0	3	7,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	42	100,0
Batez beste (urte)	8,35	15,50	11,58	16,55	17,64	3,10	4,00	12,88	
Mediana	6,00	11,00	6,00	16,00	18,50	3,00	3,50	7,00	
N	17	14	31	11	28	10	4	42	

Iturria: Siadeco, 2024.

Lokalaren ezaugarriak

Gehiago dira lokala alokairuan dutenak jabetzan dutenak baino: erdiak baino zertxobait gehiagok ordaintzen du alokairu bat (% 52,4). Negozioak zaharragoak diren kasuetan, gehiago dira jabetzan dutenak: bestelako merkataritza eta zerbitzuen kasuan (% 42,9 eta % 54,5, hurrenez hurren), eta erdialdeko establezimenduen kasuan (% 46,4).

2014ko datuekin alderatuta, joera aldatu egin da: txikizkako merkataritzako establezimenduen erdiak baino gehiagok jabetzan zuen lokala (% 54,5), eta heren bat zegoen alokairu-egoeran (% 33,3). Gaur egun, % 58,1ek du alokairuan, eta % 35,5 da jabetzan duena.

34. grafikoa. Establezimenduaren erregimena (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

13. taula. Establezimenduaren erregimena, establezimenduaren jarduera-sektorea eta kokatzen den zonaldearen arabera.

	Jarduera-sektorea				Zonaldea			Guztira	
	Elikagaiak	Bestelako merkataritza	GUZTIRA TXIKIZKAKO MERKATARITZA	BESTELAKO ZERBITZUAK	ERDIALDEA	URUMEA BERRI	BESTERIK		
	%	%		%	%	%	%	Kop	%
Jabetzan	29,4	42,9	35,5	54,5	46,4	20,0	50,0	17	40,5
Alokairuan	64,7	50,0	58,1	36,4	46,4	70,0	50,0	22	52,4
Beste bat	0,0	7,1	3,2	9,1	7,1	0,0	0,0	2	4,8
Ed/Ee	5,9	0,0	3,2	0,0	0,0	10,0	0,0	1	2,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	42	100,0
N	17	14	31	11	28	10	4	42	

Iturria: Siadeco, 2024.

Astigarragako merkataritza-establezimenduen lokalek batez beste 64,4 m^2-ko azalera dute salmentara zuzendutakoa. Azalera hori handiagoa da Arrobitxulo-Aiotzategi zonaldeko establezimenduetan (114,3 m^2 batez beste), erdialdekoetan baino (42,2 m^2). Aldea txikiagoa da establezimenduaren jarduera kontuan hartuta, baina zertxobait handiagoak dira elikagaien establezimenduak (78,2 m^2), eta txikiagoak, aldiz, bestelako zerbitzuak (43,6 m^2).

Gaur egungo txikizkako merkataritzako establezimenduek salmentara bideratzen duten lokalaren azalera handiagoa da 2014koa baino: 63,7 m^2 bideratzen ziren 2014an, eta ia 10 m^2 gehiago 2024an (72,1 m^2).

35. grafikoa. Salmentara zuzendutako azalera (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

36. grafikoa. Establezimenduen salmentara zuzendutako batez besteko azalera (m^2) |



Iturria: Siadeco, 2024.

14. taula. Salmentara zuzendutako azalera, establezimenduaren jarduera-sektorea eta kokatzen den zonaldearen arabera.

	Jarduera-sektorea				Zonaldea			Guztira	
	Elikagaiak	Bestelako merkataritza	GUZTIRA TXIKIZKAKO MERKATARITZA	BESTELAKO ZERBITZUAK	ERDIALDEA	URUMEA BERRI	BESTERIK		
	%	%	%	%	%	%	%	Kop	%
<30 m^2	23,5	21,4	22,6	9,1	25,0	10,0	0,0	8	19,0
30-49 m^2	11,8	35,7	22,6	54,5	46,4	0,0	0,0	13	31,0
50-99 m^2	29,4	21,4	25,8	36,4	17,9	50,0	50,0	12	29,6
>= 100 m^2	29,4	21,4	25,8	0,0	7,1	40,0	50,0	8	19,0
Ed/Ee	5,9	0,0	3,2	0,0	3,6	0,0	0,0	1	2,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	42	100,0
Batez beste (m^2)	78,19	65,07	72,07	43,64	42,19	114,30	90,00	64,44	
Mediana	62,50	36,50	55,00	38,00	35,00	81,50	95,00	49,00	
N	17	14	31	11	28	10	4	42	

Iturria: Siadeco, 2024.

3.2. Establezimenduetako arduraduna eta pertsonala

Astigarragako establezimendu hauen arduradunek batez beste 11,5 urte daramatzate funtzio horretan. Jardueraren arabera, bestelako zerbitzuetako arduradunek eskarmentu handiagoa dute establezimenduan elikagai-establezimenduetako arduradunek baino: heren batek bi urte baino gutxiago daramatzate establezimenduko arduradun moduan (% 35,3).

Erdialdeko bost arduradunetik bik 20 urte baino gehiago daramatza bertan lanean; Urumea Berriko arduradunak, aldiz, berriagoak dira, bostetik hiruk 5 urte baino gutxiago daramatza, eta guztiek 10 urte baino gutxiago.

Arduradunaren kasuan ere, antzematen da merkataritza-establezimendu berrien eragina: arduradunek batez beste urte gutxiago daramatzate funtzio honetan (9,71 urte) 2014an baino (12,17 urte).

37. grafikoa. Establezimenduko arduradun gisa daraman denbora (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

38. grafikoa. Establezimenduko arduradun gisa daraman batez besteko denbora (urte) |



Iturria: Siadeco, 2024.

15. taula. Establezimenduko arduradun gisa daraman denbora, establezimenduaren jarduera-sektorea eta kokatzen den zonaldearen arabera.

	Jarduera-sektorea				Zonaldea			Guztira	
	Elikagaiak	Bestelako merkataritza	GUZTIRA TXIKIZKAKO MERKATARITZA	BESTELAKO ZERBITZUAK	ERDIALDEA	URUMEA BERRI	BESTERIK		
	%	%	%	%	%	%	%	Kop	%
<2 urte	35,3	14,3	25,8	0,0	14,3	40,0	0,0	8	19,0
2-4 urte	23,5	28,6	25,8	18,2	14,3	20,0	100,0	10	23,8
5-10 urte	23,5	7,1	16,1	18,2	10,7	40,0	0,0	7	16,7
11-20 urte	0,0	14,3	6,5	27,3	17,9	0,0	0,0	5	11,9
21-30 urte	17,6	28,6	22,6	27,3	35,7	0,0	0,0	10	23,8
>30 urte	0,0	7,1	3,2	9,1	7,1	0,0	0,0	2	4,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	42	100,0
Batez beste (urte)	6,59	13,50	9,71	16,55	15,68	3,10	3,25	11,50	
Mediana	3,00	11,00	4,00	16,00	18,00	3,00	3,50	6,00	
N	17	14	31	11	28	10	4	42	

Iturria: Siadeco, 2024.

Arduradunen ezaugarriei dagokienean, hamarretik zazpik 40 eta 60 urte artean ditu; hamarretik sei emakumezkoa da (% 61,9) eta hamarretik zazpik erdi-mailatik gorako ikasketak ditu (lanbide heziketako ikasketetatik unibertsitate-ikasketak arte).

Arduradunen ezaugarriak xehetasunez aztertzen baditugu:

- Arduradun gazteenen pisua esanguratsuagoa da bestelako zerbitzuen kasuan (% 27,3), eta Arrobitxulo-Aiotzategiko (% 40) eta industria-guneetako (% 50) establezimenduetan. Adinez helduagoak dira, aldiz, erdialdeko establezimenduetako, eta batez ere, bestelako merkataritzako arduradunak: 50 urtetik gorakoa da arduradunen erdia baino gehiago (% 50 erdialdean, eta % 64,7, bestelako merkataritzan).

- Emakumezkoen pisua bereziki altua da bestelako zerbitzuetako arduradunen artean: bostetik lau baino gehiago emakumezkoa da (% 81,8). Generoen arteko banaketa orekatuago dago elikagaidenden artean eta industria-guneko establezimenduetan.

- Bestelako merkataritza-establezimenduen arduradunen artean dute ikasketa-mailarik altuena: erdiak bigarren mailako ikasketak ditu (% 50) eta % 14,3k unibertsitate-mailakoak. Industria-guneetako arduradunen hiru laurdenak bigarren mailako ikasketak ditu (% 75).

39. grafikoa. Establezimenduko arduradunen ezaugarriak (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

16. taula. Establezimenduko arduradunen ezaugarriak, establezimenduaren jarduera-sektorea eta kokatzen den zonaldearen arabera.

		Jarduera-sektorea				Zonaldea			Guztira	
		Elika-gaiak	Bestelako merka-taritza	GUZTIRA TXIKIZKAKO MERKATARITZA	BESTELAKO ZERBITZUAK	ERDI-ALDEA	URUMEA BERRI	BESTERIK		
		%	%	%	%	%	%	%	Kop	%
Adina	<= 40 urte	17,6	14,3	16,1	27,3	7,1	40,0	50,0	8	19,0
	41-50 urte	47,1	21,4	35,5	36,4	42,9	20,0	25,0	15	35,7
	51-60 urte	23,5	50,0	35,5	36,4	35,7	40,0	25,0	15	35,7
	>60 urte	11,8	14,3	12,9	0,0	14,3	0,0	0,0	4	9,5
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	42	100,0
Generoa	Emakumezkoa	52,9	57,1	54,8	81,8	64,3	60,0	50,0	26	61,9
	Gizonezkoa	47,1	42,9	45,2	18,2	35,7	40,0	50,0	16	38,1
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	42	100,0
Euskararen ezagutza-maila	Ondo hitz egiten du	47,1	42,9	45,2	63,6	46,4	60,0	50,0	21	50,0
	Ulertzen du baina hitz egiteko zailtasunak ditu	35,3	50,0	41,9	27,3	46,4	10,0	50,0	16	38,1
	Ez du ulertzen/Ez daki euskaraz	17,6	7,1	12,9	9,1	7,1	30,0	0,0	5	11,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	42	100,0
Amaitutako ikasketak	Batere ez, lehen mailakoak baino gutxiago	5,9	0,0	3,2	0,0	3,6	0,0	0,0	1	2,4
	Lehen mailakoak, Oinarrizko Batxilergoa, OHO	29,4	35,7	32,3	9,1	32,1	20,0	0,0	11	26,2
	Lanbide Heziketa	41,2	0,0	22,6	45,5	25,0	40,0	25,0	12	28,6
	Bigarren mailakoak: Goimailako Batxilergoa, IEE, BBB, UBI	23,5	50,0	35,5	45,5	32,1	40,0	75,0	16	38,1
	Unibertsitate mailakoak (Lizentziatura, Doktoretza, Posgradua, Diplomatura..)	0,0	14,3	6,5	0,0	7,1	0,0	0,0	2	4,8
	Guztira	100,0	100,0	100	100,0	100,0	100,0	100,0	42	100,0
	N	17	14	31	11	28	10	4	42	

Iturria: Siadeco, 2024.

Astigarragako 42 establezimenduk 99 enplegu sortzen dituzte: horietatik % 70,7 emakumezkoa da eta % 29,3, gizonezkoa. Emakumezkoen presentzia nabarmen handiagoa da bestelako zerbitzuetan (% 84,2) eta Urumea Berriko establezimenduetan (% 79,4). Aldiz, gizonezkoena altuagoa da bestelako merkataritza-establezimenduetan (% 41,9) eta emakumezkoak baino gehiago dira industrialdeetako establezimenduetan (% 53,3).

40. grafikoa. Establezimenduan lanean ari diren pertsonen generoa, jarduera-sektorearen eta zonaldearen arabera (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

41. grafikoa. Astigarragako establezimenduetan lanean ari diren pertsona kopurua, jarduera-sektorearen eta zonaldearen arabera (pertsonak) |



Iturria: Siadeco, 2024.

17. taula. Establezimenduan lanean ari diren pertsonen generoa eta lanean ari diren pertsona kopurua, establezimenduaren jarduera-sektorea eta kokatzen den zonaldearen arabera.

	Jarduera-sektorea				Zonaldea			Guztira	
	Elikagaiak	Bestelako merkataritza	GUZTIRA TXIKIZKAKO MERKATARITZA	BESTELAKO ZERBITZUAK	ERDIALDEA	URUMEA BERRI	BESTERIK		
	%	%		%	%	%	%	Kop	%
Emakumezkoak	73,5	58,1	67,5	84,2	72,0	79,4	46,7	70	70,7
Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteen % 87,4k erosten dituzte drogeriako, lurringintzako eta etxeko garbiketako produktuak:

- Kasu honetan ere emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago erosten dituzte: emakumezkoen % 92,1ek eta gizonezkoen % 83k.
- Adin-tartearen arabera aldea handia da: 30 eta 44 urte arteko ia denek erosten dituzte (% 99) eta 19 eta 29 urte artekoetan % 52,8k.
- Kanpotik Astigarragara bizitzera etorritakoen artean % 95-99aren artekoa da produktu-mota horiek erosten dituztenen ehunekoa eta beti Astigarragan bizitakoen artean % 64,7ra jaisten da.

81. grafikoa. Drogeriako, lurringintzako eta etxeko garbiketako produktuak erosten dituzten 19 eta 44 urte arteko gazteak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzaten urteen arabera (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

Drogeriako, lurringintzako eta etxeko garbiketarako produktuak herriko supermerkatuetan erosten dituzte gazteen erdiak baino gehiagok (% 56). Herriko denda tradizionaletan erosten dituztenak % 15,7 dira.

Astigarragatik kanpo batez ere hipermerkatuetan erosten dira produktu horiek (% 43,6k) eta bigarren maila batean merkataritza-guneetako dendetan (% 24,7).

Produktu hauen internet bidezko erosketa ohikoagoa da herriko gazteen artean: gazteen % 16,1ek erosten ditu drogeriako, lurringintzako eta etxeko garbiketarako produktuek internet bidez.

82. grafikoa. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek drogeriako, lurringintzako eta etxeko garbiketa produktuak erosten dituzten establezimendu-mota, Astigarragan eta Astigarragatik kanpo (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

Inkestatuen erdiak Astigarragako supermerkatuetan erosten ditu drogeriako, lurringintzako eta etxeko garbiketarako produktuak normalean: % 49 da ohiko eroslea. Halako establezimendu-motan erostea ohikoagoa da Astigarragan bizitzen 5 urte baino gutxiago daramatzatenen artean (% 57,8). 19-29 adin-tartekoak eta Astigarragan betidanik bizi direnak gehiago dira noizbehinkako erosleak.

Bost kontsumitzailetik ia bik kanpoko hipermerkatuetan erosten dituzte drogeriako, lurringintzako eta etxeko garbiketarako produktuak hilean behin baino gehiagotan (% 38,5). Datua nabarmen altuagoa da duela 10 urte baino gehiago Astigarragara bizitzera etorri zirenen artean (% 62,2).

Merkataritza-guneetan erosi ohi dituzte halako produktuak inkestatuen % 17,8, ia laurden bat da Astigarragan 6 eta 10 urte artean daramatzatenen artean (% 23,2). Noizbehinka erosten du % 6,8k, eta zertxobait igotzen da gazteenen artean (% 16,9).

Internet bidez eta herriko dendetan gehiago erosten dute noizbehinka: % 11,7k eta % 9,4k, hurrenez hurren –emakumezkoek eta Astigarragan jaiotakoek herriko denda txikitan, gehixeago–.

63. taula. Drogeriako, lurringintzako eta etxeko garbiketa produktuen erosle-motak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

		Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
		Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
		%	%	%	%	%	%	%	%	%
Herriko denda tradizionala (Astigarraga)	Ohiko erosleak	7,2	5,3	1,7	7,1	6,4	7,1	6,4	4,9	6,3
	Noizbehinkako erosleak	14,2	4,4	0,0	11,1	4,8	10,0	10,6	13,2	9,4
	Inoiz ez/ Ez dagokio	78,6	90,3	98,3	81,8	88,8	82,9	83,0	81,8	84,3
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Denda tradizionala (Astigarragatik kanpo)	Ohiko erosleak	4,8	1,5	7,2	2,5	4,7	5,7	0,0	1,1	3,2
	Noizbehinkako erosleak	8,2	0,0	13,7	2,5	8,6	1,4	4,7	2,3	4,2
	Inoiz ez/ Ez dagokio	87,0	98,5	79,1	94,9	86,7	92,9	95,3	96,6	92,5
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Azoka edo azoka txikia (Astigarragatik kanpo)	Ohiko erosleak	11,5	7,1	5,1	10,1	11,5	7,1	4,2	14,4	9,4
	Noizbehinkako erosleak	2,7	0,9	3,4	1,5	0,0	2,8	3,4	1,1	1,8
	Inoiz ez/ Ez dagokio	85,8	92,1	91,5	88,4	88,5	90,1	92,4	84,5	88,8
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Supermerkatua (Astigarraga)	Ohiko erosleak	47,7	50,4	35,0	51,5	57,8	48,3	38,6	48,8	49,0
	Noizbehinkako erosleak	6,3	7,6	12,1	6,1	3,2	4,9	7,6	13,6	7,0
	Inoiz ez/ Ez dagokio	45,9	42,0	52,9	42,4	39,0	46,8	53,7	37,6	44,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Supermerkatua (Astigarragatik kanpo)	Ohiko erosleak	38,7	38,3	19,5	41,9	30,9	35,0	62,2	31,3	38,5
	Noizbehinkako erosleak	4,2	5,9	2,1	5,6	1,6	7,1	6,4	5,2	5,0
	Inoiz ez/ Ez dagokio	57,1	55,7	78,4	52,5	67,5	57,9	31,4	63,6	56,4
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Hipermerkatua (Astigarragatik kanpo)	Ohiko erosleak	19,5	16,0	13,1	18,7	12,3	23,2	11,9	22,6	17,8
	Noizbehinkako erosleak	8,3	5,2	16,9	5,1	8,3	4,7	8,5	6,4	6,8
	Inoiz ez/ Ez dagokio	72,1	78,7	70,1	76,2	79,4	72,1	79,6	71,0	75,3
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Internet	Ohiko erosleak	5,2	3,5	3,4	4,5	3,5	5,7	4,3	3,8	4,4
	Noizbehinkako erosleak	16,5	6,6	9,3	12,1	8,1	17,1	12,7	8,0	11,7
	Inoiz ez/ Ez dagokio	78,3	89,9	87,3	83,3	88,4	77,3	83,0	88,3	83,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK, ORDENAGAILUAK ETA INFORMATIKA PRODUKTUAK

Etxetresna elektrikoak, ordenagailuak eta informatikako produktuak erosten dituzte Astigarragako gazteen % 86,9k.

- Emakumezkoan artean altuagoa da erosten dutenen ehunekoa: % 88,5 emakumezkoetan eta % 85,4 gizonezkoetan.
- Adinaren arabera, 30 eta 44 urte artekoen % 91k erosten ditu eta 19 eta 29 urte artekoetan % 74,5ek.
- Astigarragan bizitzen daramaten denboraren arabera, kanpotik duela 6 urte baino gehiago etorritakoen artean da altuagoa ehunekoa: 6 eta 10 urte artean daramatzatenetan % 91,1, eta 10 urte baino gehiago daramatzatenetan % 94,8.

83. grafikoa. Etxetresna elektrikoak, ordenagailuak eta informatika produktuak erosten dituzten 19 eta 44 urte arteko gazteak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzaten urteen arabera (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

Etxetresna elektrikoak, ordenagailuak eta informatikako produktuak internet bidez erosten dituzte herriko gazteen % 61,6k. Arropa eta oinetakoen ondoren internet bidez gehien erosten den produktu-mota da.

Merkataritza-guneetan kokatutako establezimenduak aukeratzen dituzte ondoren produktu horiek erosteko (% 46,8), eta hirugarren aukera, beste herrietako denda tradizionalak edo espezializatuak (% 16,2).

Produktu horiek Astigarragan erosten dituztenak gazteen % 4 dira.

84. grafikoa. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek etxetresna elektrikoak, ordenagailuak eta informatika produktuak erosten dituzten establezimendu-mota, Astigarragan eta Astigarragatik kanpo (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

Maiztasunari dagokionez, ia guzti-guztiak dira noizbehinkako erosleak, beraz, datu orokorrek bat egiten dute aurretik aipatutakoekin. Aldagai ezberdinekin gurutzatuz gero, ikusten dena da gizonezkoek nabarmen gehiago erosten dituztela halako produktuak internet bidez (% 68,5) emakumezkoek baino (% 54,6). Aldiz, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago erosten dute noizean behin merkataritza-guneetan kokatutako dendetan (% 52,5 eta % 41,1, hurrenez hurren).

Kanpoko denda tradizionalean erosten dute % 16,2k, eta kasu hobetan ere, emakumezkoek joera handiagoa dute (% 21,7) gizonezkoek baino (% 10,7). Eta 30-44 adin-tartekoek ere gehiago jotzen dute bertara (% 18,2), gazteagoek baino (% 9).

64. taula. Etxetresna elektrikoak, ordenagailuak eta informatika produktuen erosle-motak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

		Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
		Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
		%	%	%	%	%	%	%	%	%
Herriko denda tradizionala (Astigarraga)	Ohiko erosleak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	Noizbehinkako erosleak	4,9	3,2	2,7	4,4	5,0	3,1	6,3	2,6	4,0
	Inoiz ez/ Ez dagokio	95,1	96,8	97,3	95,6	95,0	96,9	93,7	97,4	96,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Denda tradizionala (Astigarragatik kanpo)	Ohiko erosleak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	Noizbehinkako erosleak	21,7	10,7	9,0	18,2	10,8	16,9	22,7	15,0	16,2
	Inoiz ez/ Ez dagokio	78,3	89,3	91,0	81,8	89,2	83,1	77,3	85,0	83,8
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Hipermerkatua (Astigarragatik kanpo)	Ohiko erosleak	0,9	0,0	0,0	0,6	0,0	1,5	0,0	0,0	0,4
	Noizbehinkako erosleak	3,1	0,9	1,2	2,2	3,1	0,0	4,2	1,5	2,0
	Inoiz ez/ Ez dagokio	96,0	99,1	98,8	97,2	96,9	98,5	95,8	98,5	97,6
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Merkataritza-guneetan kokatutako establezimenduak	Ohiko erosleak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	Noizbehinkako erosleak	52,5	41,1	57,1	44,0	58,2	32,8	41,7	55,0	46,8
	Inoiz ez/ Ez dagokio	47,5	58,9	42,9	56,0	41,8	67,2	58,3	45,0	53,2
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Internet	Ohiko erosleak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	Noizbehinkako erosleak	54,6	68,5	61,7	61,5	54,9	67,2	57,7	63,9	61,6
	Inoiz ez/ Ez dagokio	45,4	31,5	38,3	38,5	45,1	32,8	42,3	36,1	38,4
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

BESTELAKO PRODUKTU KOMERTZIALAK
(LIBURUAK, LANDAREAK, OPTIKA, ARGAZKIGINTZA, JOSTAILUAK, MASKOTAK...)

Bestelako produktuak erosten dituzte gazteen % 86,6k (liburuak, landareak, optika, argazkigintza, jostailuak, maskotak...).

- Emakumezkoetan ohikoagoa da bestelako produktuen erosketa: % 92,1ek erosten ditu eta gizonezkoetan % 81,3k.
- 30-44 urte artekoetan, gazteagoetan baino ohikoagoa da (% 94,5 eta % 62,8, hurrenez hurren).
- Astigarragan bizitzen daramaten denboraren arabera, 5 urte baino gutxiago daramatzatenen % 96,5ek erosten ditu bestelako produktuak; 6 eta 10 urte artean daramatzatenen % 92,4k eta 10 urte baino gehiago daramatzatenen % 91,3k.

85. grafikoa. Bestelako produktu komertzialak erosten dituzten 19 eta 44 urte arteko gazteak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzaten urteen arabera (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

Altua da bestelako produktuak herriko denda tradizionaletan edo espezializatuetan erosten dituzten gazteen proportzioa: Astigarragako dendetan erosten dituztenak % 55,9 dira eta beste herrietakoetan erosten dituztenak % 57,6.

Jarraian internet bidezko erosketa da ohikoena: gazteen % 43,1ek internet bidez erosten ditu bestelako produktu komertzialak.

Merkataritza-guneetan kokatuta dauden establezimenduetan erosten dituztenak % 32,1 dira.

86. grafikoa. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek bestelako produktu komertzialak erosten dituzten establezimendu-mota, Astigarragan eta Astigarragatik kanpo (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

Bestelako produktu komertzialen kasuan, berriro ere agerian geratzen da herriko zein kanpoko denda txikien indarra. Gutxi dira ohiko erosleak, baina direnak, batez ere, herriko zein kanpoko denda txikietan erosten dituzte halako produktuak: % 7,7 da herriko dendetako ohiko eroslea, eta % 4,7, kanpoko dendetakoa. Bi kasutan emakumezkoen proportzioa handiagoa da (% 12,4 eta % 7,3); eta gizonezkoek apenas erosten dute halako produkturik, ez herrian (% 2,7), ezta kanpoan (% 1,8) ere. Astigarragan jaio direnek gehiago erosten dituzte hilean behin baino gehiago denda txiki hauetan: % 11,8k herrian, eta % 6,6k, kanpoan.

Noizean behin erosten dutenek ere denda tradizionalean erosten dituzte gehien bestelako produktuak: % 52,9 kanpoko dendetako noizbehinkako eroslea da, eta % 48,2, aldiz, Astigarraga bertako dendetakoa. Kasu honetan ere, emakumezkoak gehiago dira gizonezkoak baino –gizonezkoen erdiek ez dute halako produkturik inoiz erosten–; eta 30 eta 44 urte bitartekoek ere gehiago erosten dituzte halako produktuak –19-29 adin-tartekoek ez dituzte inoiz erosten–.

Ia bostetik bik internet bidez erosten ditu bestelako produktuak (% 39,8) noizean behin. Noizean behin bide hori erabiltzea ohikoagoa da gizonezkoen (% 46,9), 30 eta 44 urte artekoen (% 41,8) eta Astigarragan bizitzen 10 urte baino gutxiago eta 5 baino gehiago daramatzatenen artean.

65. taula. Bestelako produktu komertzialen erosle-motak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

		Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
		Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
		%	%	%	%	%	%	%	%	%
Herriko denda tradizionala (Astigarraga)	Ohiko erosleak	12,4	2,7	4,3	8,5	6,5	6,1	6,6	11,8	7,7
	Noizbehinkako erosleak	49,6	46,7	34,1	51,3	48,8	60,6	41,4	38,7	48,2
	Inoiz ez/ Ez dagokio	38,1	50,6	61,6	40,2	44,7	33,3	52,0	49,5	44,1
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Denda tradizionala (Astigarragatik kanpo)	Ohiko erosleak	7,3	1,8	4,3	4,8	4,9	4,6	2,2	6,6	4,7
	Noizbehinkako erosleak	56,8	48,7	40,8	55,6	57,6	54,6	54,4	44,7	52,9
	Inoiz ez/ Ez dagokio	35,9	49,5	54,9	39,7	37,6	40,8	43,3	48,7	42,4
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Hipermerkatua (Astigarragatik kanpo)	Ohiko erosleak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	Noizbehinkako erosleak	0,5	2,7	1,4	1,6	1,6	3,0	0,0	1,0	1,6
	Inoiz ez/ Ez dagokio	99,5	97,3	98,6	98,4	98,4	97,0	100,0	99,0	98,4
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Merkataritza-guneetan kokatutako establezimenduak	Ohiko erosleak	3,0	0,9	1,4	2,1	1,6	0,0	2,2	4,5	2,0
	Noizbehinkako erosleak	32,2	27,8	22,8	31,7	25,6	32,2	39,0	25,6	30,1
	Inoiz ez/ Ez dagokio	64,8	71,3	75,8	66,1	72,7	67,8	58,8	69,9	67,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Internet	Ohiko erosleak	4,2	2,5	1,7	3,7	4,4	0,0	4,4	5,2	3,4
	Noizbehinkako erosleak	33,2	46,9	30,9	41,8	47,1	46,6	30,8	31,3	39,8
	Inoiz ez/ Ez dagokio	62,6	50,6	67,4	54,5	48,4	53,4	64,8	63,5	56,9
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

ALTZARIAK, BURDINDEGIKO PRODUKTUAK EDO ETXERAKO ARTIKULUAK
(DEKORAZIOA, ALFONBRAK, ETXEKO TRESNERIA...)

Altzarien, burdindegiko produktuen edo etxerako artikuluen erosketa (dekorazioa, alfonbrak, etxeko tresneria...) ez da hain ohikoa Astigarragako gazteen artean: % 67,7k adierazi dute produktu horiek erosten dituztela.

- Gizonezkoen artean zertxobait gehiago dira produktu horiek erosten dituztenak (% 68,8 gizonezkoetan eta % 66,6 emakumezkoetan).
- Adinak eragin zuzena du: 30 eta 44 urte artekoen % 80k erosten ditu altzariak, burdindegiko produktuak eta etxerako artikuluak, baina 19 eta 29 urte artekoetan % 30,9k besterik ez.
- Astigarragan bizitzen daramaten denboraren arabera, kanpotik duela 6 urte baino gehiago etorritakoen artean da altuagoa ehunekoa: % 84,1 6 eta 10 urte artean daramatzatenen, eta % 80,4 10 urte baino gehiago daramatzatenen kasuan.

87. grafikoa. Altzariak, burdindegiko produktuak edo etxerako artikuluak erosten dituzten 19 eta 44 urte arteko gazteak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzaten urteen arabera (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

Altzarien, burdindegiko produktuen eta etxerako artikuluen erosketan ere internet bidezko kontsumoa altua da: gazteen % 49,9k internet bidez erosten dituela adierazi dute. Zertxobait gehiago dira altzarietan eta etxeko tresnerian espezializatutako hipermerkatuetan erosten dutenak: % 51,3.

Herriko denda tradizional edo espezializatuetan erosten dituzte produktu horiek 5 gaztetatik 2k baino gehiagok: Astigarragakoetan % 20,5ek eta beste herrietakoetan % 25,8k.

88. grafikoa. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek altzariak, burdindegiko produktuak edo etxerako artikuluak erosten dituzten establezimendu-mota, Astigarragan eta Astigarragatik kanpo (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

Altzarien, burdindegiko produktuen eta etxerako artikuluen erosketa ere noizbehinkakoa izan ohi da. Hori horrela, oso gutxi dira hilean behin baino gehiago erosten dituzten herritarrak (% 2tik beherakoa).

Noizbehinkako erosketa horiek egiteko bi leku nabarmentzen dira: altzarietan eta etxeko tresnerian espezializatutako hipermerkatuetan erosten ditu produktu horiek % 51,1ek, eta internet bidez % 48,8k.

Denda tradizionalek erakartzen dituzte noizean behingo erosle batzuk: Astigarragan bertan erosten ditu produktu horiek inkestatuen bostetik batek (% 20,1); eta ia laurden batek kanpoko denda tradizionalak aukeratzen ditu (% 24,1) –batez ere Astigarragan bizitzen 10 urte baino gehiago daramatzatenek–.

66. taula. Altzarien, burdindegiko produktuen eta etxerako artikuluen erosle-motak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

		Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
		Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
		%	%	%	%	%	%	%	%	%
Herriko denda tradizionala (Astigarraga)	Ohiko erosleak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	Noizbehinkako erosleak	21,7	19,4	19,4	20,6	14,9	20,5	23,9	23,5	20,5
	Inoiz ez/ Ez dagokio	78,3	80,6	80,6	79,4	85,1	79,5	76,1	76,5	79,5
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Denda tradizionala (Astigarragatik kanpo)	Ohiko erosleak	3,5	0,0	0,0	1,9	0,0	3,3	2,5	0,0	1,7
	Noizbehinkako erosleak	30,9	17,8	12,3	25,6	16,2	24,3	34,3	22,2	24,1
	Inoiz ez/ Ez dagokio	65,6	82,2	87,7	72,5	83,8	72,3	63,2	77,8	74,2
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Hipermerkatua (Astigarragatik kanpo)	Ohiko erosleak	0,0	1,1	0,0	0,6	0,0	0,0	2,5	0,0	0,6
	Noizbehinkako erosleak	2,3	2,1	0,0	2,5	0,0	6,7	0,0	0,0	2,2
	Inoiz ez/ Ez dagokio	97,7	96,8	100,0	96,9	100,0	93,3	97,5	100,0	97,2
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Altzarietan eta etxeko tresnerian espezializatutako hipermerkatuak	Ohiko erosleak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	Noizbehinkako erosleak	44,8	57,3	51,8	51,2	56,5	45,9	48,2	57,2	51,3
	Inoiz ez/ Ez dagokio	55,2	42,7	48,2	48,8	43,5	54,1	51,8	42,8	48,7
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Internet	Ohiko erosleak	0,0	2,1	0,0	1,2	0,0	1,7	2,5	0,0	1,1
	Noizbehinkako erosleak	45,5	51,8	44,0	49,4	42,1	55,7	37,4	58,0	48,8
	Inoiz ez/ Ez dagokio	54,5	46,1	56,0	49,4	57,9	42,7	60,1	42,0	50,1
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

BIGARREN ESKUKO PRODUKTUEN EROSKETA

Astigarragako gazteen % 44,9k erosten dituzte bigarren eskuko produktuak. Produktu horien erosketa altuagoa da emakumezkoetan (% 47,2) eta 30 eta 44 urte artean dituztenetan (% 47,5).

89. grafikoa. Internet bidez erosten al diren bigarren eskuko produktuak |



Iturria: Siadeco, 2024.

67. taula. Internet bidez erosten al diren bigarren eskuko produktuak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Bai	47,2	42,7	37,2	47,5	53,9	49,7	40,5	36,4	44,9
Ez	51,2	54,8	60,7	50,5	46,1	48,9	57,5	59,3	53,0
Ed/Ee	1,5	2,5	2,2	2,0	0,0	1,4	2,0	4,2	2,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

Bigarren eskuko produktuak erosten dituztenen artean, gehien erosten dena arropa eta zapatak dira: gazteen % 31,5ek erosten ditu bigarren eskuko produktu horiek, eta 19 eta 29 urte artekoetan eta emakumezkoetan ohikoagoa da produktu horiek erostea (% 55ek —% 15,8 gizonezkoetan— eta % 46,3k, hurrenez hurren).

Bigarren eskuko bigarren produkturik erosiena gazteen artean etxerako altzariak eta tresnak dira (% 18,7): kasu honetan horien erosketa ohikoagoa da 30 eta 44 urte artekoetan (% 21,0) eta Astigarragan bizitzen 5 urte baino gutxiago daramatzatenetan (% 34,3).

Hirugarren postuan bigarren eskuko teknologia eta bideojokoak daude. Gazteen % 13,1ek erosten ditu, eta gizonezkoetan eta adin-tarte gazteenean igotzen da ehunekoa nabarmen: gizonezkoen % 20,5ek erosten ditu (emakumezkoetan % 6,2k) eta 19 eta 29 urte artekoen % 19,1ek.

Kirola egiteko bigarren eskuko produktuak erosten dituztenak % 11,2 dira; kasu honetan ere gizonezkoetan ohikoagoa den arren (% 12,8), emakumezkoekiko aldea ez da hain handia (% 9,8).

Azkenik, bigarren eskuko liburuak eta diskoak erosten dituzten Astigarragako gazteak % 8 dira. Eta aldeak hemen ere oso handiak ez badira ere, ohikoagoa da horien erosketa emakumezkoetan (% 11,1) gizonezkoetan baino (% 4,7) eta 19 eta 29 urte artekoetan (% 10,2).

90. grafikoa. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek gehien erosten dituzten bigarren eskuko produktuak (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

68. taula. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek gehien erosten dituzten bigarren eskuko produktuak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emakumezkoa %	Gizonezkoa %	19-29 urte %	30-44 urte %	5 urte baino gutxiago %	6-10 urte %	10 urte baino gehiago %	Beti bizi izan naiz Astigarragan %	%
Arropa eta zapatak	46,3	15,8	55,0	25,3	27,4	25,4	23,8	48,5	31,5
Etxerako altzariak eta tresnak	16,9	20,6	9,7	21,0	34,3	11,3	14,9	12,1	18,7
Teknologia eta bideojokoak	6,2	20,5	19,1	11,6	14,5	13,3	7,9	14,8	13,1
Kirola egiteko produktuak	9,8	12,8	5,9	12,6	11,6	10,5	10,0	12,5	11,2
Liburuak eta diskoak	11,1	4,7	10,2	7,4	3,5	14,1	8,6	5,4	8,0
Besterik	9,8	25,7	0,0	22,1	8,7	25,4	34,7	6,7	17,5
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

ZERBITZUETAKO ETA OSTALARITZAKO KONTSUMOA ASTIGARRAGAN ETA ASTIGARRAGATIK KANPO

Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek merkataritzaz gain gehien kontsumitzen dutena ostalaritza da, tabernak (% 98,4) eta jatetxeak eta sagardotegiak (% 98,4). Tabernen kasuan, beti edo ia beti herriko tabernetara joateko ohitura du erdia pasatxok (% 53,3); eta batzuetan Astigarragakoetara eta beste batzuetan kanpoetara joaten da % 40,2. Astigarragako jatetxeetara eta sagardotegietara joaten da gazteen % 39,7 beti edo ia beti, eta batzuetan Astigarragakoetara eta beste batzuetan kanpokoetara % 52,3.

Ostalaritzaren ondoren, herriko gazteek gehien erabiltzen dutena zerbitzu odontologikoak dira: gazteen % 95,7k erabiltzen ditu. Gazteen artean ohikoagoa da Astigarragako hortz kliniketara joatea beste herrikoetara baino (% 52,8 beti edo ia beti Astigarragakoetara joaten da eta % 40,4 beste herrietakoetara).

Gazteen % 84k ileapaindegi eta zaintza estetikoko zerbitzuak erabiltzen ditu, eta zerbitzu hauen erabilera ere Astigarragan nagusitzen da: % 45,9 beti edo ia beti Astigarragara joaten da eta % 30,9 beti edo ia beti beste herri batera.

Ibilgailuen mantentze-lanetako zerbitzuak edota zaintza fisiko eta pertsonalen zerbitzuak erabiltzen dituzten gazteen 10etik 8 inguruk (% 82k eta % 77,2k, hurrenez hurren). Eta bi zerbitzu-mota horietan ere ohikoagoa da zerbitzua Astigarragan jasotzea (% 50,3k beti edo ia beti Astigarragan ibilgailuen mantentze-lanetan, eta % 48,9k zaintza pertsonalen kasuan).

Gazteen % 72,8k aseguru-etxeetako zerbitzuak erabiltzen baditu ere, ohikoagoa da zerbitzu horiek herritik kanpo jasotzea: % 38,4k beti edo ia beti beste herri batzuetara jotzen du eta % 24,3k beti edo ia beti Astigarragara.

Akademia-zerbitzuen eta aholkularitza-enpresen, higiezinen-enpresen edota abokatuen zerbitzuen erabilera ez dago hain zabaldua herriko gazteen artean. Gazteen % 32,3 soilik joaten da mota ezberdinetako akademiatara, eta gehiengoa (% 22,2) herrikoetara joaten da beti edo ia beti. Aholkularitza-enpresen, higiezinen-enpresen edota abokatuen zerbitzuak gazteen % 29,7k soilik erabiltzen ditu eta ohikoagoa da Astigarragatik kanpora jotzea zerbitzu horietaz baliatzeko (% 20,4k beti edo ia beti beste herri batean erabiltzen ditu).

91. grafikoa. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek egiten duten zerbitzuetako eta ostalaritzako kontsumoa, Astigarragan eta Astigarragatik kanpo (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

Generoarekin, adinarekin eta herrian bizitzen daramatzaten denborarekin gurutzatuta zenbait alde aipatu daitezke:

- **Ileapaindegietara eta estetika-zentroetara** beti edo ia beti Astigarragan geratzen direnak gehiago dira bertan jaiotakoak (% 50,5), eta kanpora joaten direnak, aldiz, gehiago 19-29 adin-tartekoak (% 38,1) eta duela 6-10 urte etorri zirenak (% 35 eta % 37,1, hurrenez hurren). Emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago joaten dira kanpora zerbitzu hau jasotzera; gizonezkoen % 23,1 ez da joaten.
- Emakumezkoen eta 30 eta 44 urte artekoen % 52k herrian jasotzen ditu **zaintza fisikoarekin eta pertsonalarekin** loturiko zerbitzuak beti edo ia beti, eta herrian bertan jaiotakoen % 56,7k. Gizonezkoak gehixeago dira beti edo ia beti kanpoan bilatzen dituztenak (% 22,9), baita herrian 6-10 urte daramatzatenak ere (% 29,9). 19 eta 29 urte artekoen heren batek ez ditu halako zerbitzuak erabiltzen (% 35,8).
- **Zerbitzu odontologikoen** kasuan, herrian betidanik bizi direnek eta 10 urte baino gehiago daramatzatenek Astigarragan geratzeko joera handiagoa dute: beti edo ia beti herriko dentistetara doazenak % 65,7 eta % 61,5 dira, hurrenez hurren. Kanpora joateko joera gehiago dute Astigarragara duela 10 urte baino gutxiago joan zirenek.

- Gehiengoak ez du **akademia-zerbitzurik** behar, baina behar dutenak, batez ere, herriko akademia aukeratzen dute beti edo ia beti: emakumezkoek (% 30,6) eta bizitzen 10 urte baino gehiago daramatzatenek (% 36,2), gehiago.
- **Aseguruen** kasuan, adinaren araberakoa da aldea: 19 eta 29 urte artekoen hiru laurdenak ez du behar, eta 30 eta 44 urte artekoen ia erdiak kanpoko aseguru-etxeak ditu beti edo ia beti.
- **Aholkularitza-enpresengana** jotzea ere ez dago oso zabalduta, hamarretik zazpi ez dira joaten. Gehiago erabiltzen dituzte gizonezkoek eta 30 eta 44 urte artekoek, eta horiek, gehiago joaten dira kanpora emakumezkoak eta 19 eta 29 urte artekoak baino.
- **Ibilgailuen mantentze-lanetarako tailerren** kasuan, 19 eta 29 urte bitartekoen % 52,6k ez du erabiltzen zerbitzu hori. 30 eta 44 urte arteko % 59 beti edo ia beti Astigarragara joaten da. Eta generoaren arabera, gizonezkoak gehiago joaten dira herrikoetara emakumezkoak baino, eta alderantziz, emakumezkoak gehiago joaten dira kanpora.
- **Tabernetara** ia denak joaten dira inoiz. Erdia baino gehiago geratzen da herrian beti edo ia beti, batez ere, herrian bertan jaiotakoak (% 58) eta bertan 10 urte baino gehiago daramatzatenak (% 59,8) eta 30-44 adin-tartekoak (% 58). Gazteagoak gutxiago geratzen dira Astigarragan beti edo ia beti, erdiak dio batzuetan herrian geratzen dela, eta beste batzuetan, kanpora joaten dela (% 50).
- Astigarragako bertako **jatetxe eta sagardotegietara** beti edo ia beti joateko ohitura gehiago dute bertan jaio direnek (% 47,7). Gainontzekoen joera da batzuetan herrian geratzekoa, eta beste batzuetan, aldiz, kanpora joatekoa.

69. taula. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek egiten duten zerbitzuetako eta ostalaritzako kontsumoa, Astigarragan eta Astigarragatik kanpo, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

		Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
		Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	19-29 urte	30-44 urte	<= 5 urte	6-10 urte	>10 urte	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
		%	%	%	%	%	%	%	%	%
Ile apaindegiak eta zaintza estetikoa	Beti edo ia beti Astigarragan	47,7	44,2	36,6	49,0	37,7	48,3	45,4	50,5	45,9
	Batzuetan Astigarragan eta beste batzuetan Astigarragatik kanpo	8,8	5,6	9,1	6,5	5,9	4,2	8,0	10,2	7,2
	Beti edo ia beti Astigarragatik kanpo	34,9	27,1	38,1	28,5	29,7	35,0	37,1	24,6	30,9
	Ez da joaten	8,6	23,1	16,2	16,0	26,7	12,6	9,5	14,7	16,0
	Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Zaintza fisikoak eta pertsonalak (masajeak, fisioterapia, osteopata, podologoa...)	Beti edo ia beti Astigarragan	52,0	46,0	39,7	52,0	41,3	39,9	59,0	56,7	48,9
	Batzuetan Astigarragan eta beste batzuetan Astigarragatik kanpo	11,4	6,6	2,7	11,0	7,2	11,2	11,3	6,9	8,9
	Beti edo ia beti Astigarragatik kanpo	15,1	22,9	20,9	18,5	18,6	29,9	11,5	14,7	19,1
	Ez da joaten	21,1	24,5	35,8	18,5	32,0	19,0	18,2	21,8	22,8
	Ed/Ee	0,5	0,0	0,9	0,0	0,9	0,0	0,0	0,0	0,2
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Zerbitzu odontologikoak (hortz klinikak, dentistak...)	Beti edo ia beti Astigarragan	53,5	52,0	52,0	53,0	41,8	41,6	61,5	65,7	52,8
	Batzuetan Astigarragan eta beste batzuetan Astigarragatik kanpo	3,1	2,0	1,1	3,0	0,0	0,0	6,0	4,6	2,5
	Beti edo ia beti Astigarragatik kanpo	39,7	41,1	38,7	41,0	49,9	53,1	30,5	27,9	40,4
	Ez da joaten	3,7	4,9	8,2	3,0	8,3	5,2	2,0	1,8	4,3
	Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Mota guztietako akademiak (hizkuntzak, musika, pintura, ikasketetarako laguntza, euskaltegiak..)	Beti edo ia beti Astigarragan	30,6	14,2	13,8	25,0	12,6	23,8	36,2	19,9	22,2
	Batzuetan Astigarragan eta beste batzuetan Astigarragatik kanpo	2,3	0,5	1,1	1,5	0,0	1,4	0,0	3,4	1,4
	Beti edo ia beti Astigarragatik kanpo	8,2	8,7	9,8	8,0	13,2	5,1	12,7	5,1	8,4
	Ez da joaten	58,5	76,5	74,4	65,5	73,3	69,7	51,1	71,7	67,7
	Ed/Ee	0,5	0,0	0,9	0,0	0,9	0,0	0,0	0,0	0,2
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Aseguru-etxeak	Beti edo ia beti Astigarragan	23,5	25,0	13,1	28,0	23,5	20,5	26,8	26,7	24,3
	Batzuetan Astigarragan eta beste batzuetan Astigarragatik kanpo	1,5	2,2	0,0	2,5	0,0	2,8	4,0	1,2	1,9
	Beti edo ia beti Astigarragatik kanpo	34,6	42,0	6,7	49,0	38,8	58,4	46,8	15,4	38,4
	Ez da joaten	29,1	25,3	77,1	10,5	24,2	9,9	14,4	52,4	27,2
	Ed/Ee	11,2	5,5	3,1	10,0	13,5	8,4	8,1	4,2	8,3
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Aholkularitza-enpresak, higiezinen enpresak, abokatuak	Beti edo ia beti Astigarragan	5,5	7,9	2,9	8,0	8,4	2,8	8,0	8,1	6,7
	Batzuetan Astigarragan eta beste batzuetan Astigarragatik kanpo	1,5	1,5	0,0	2,0	0,0	0,0	2,0	3,7	1,5
	Beti edo ia beti Astigarragatik kanpo	16,6	23,9	2,0	26,5	24,4	27,6	20,1	11,0	20,4
	Ez da joaten	75,9	64,9	92,0	63,0	64,7	69,6	68,4	76,3	70,3
	Ed/Ee	0,5	1,8	3,1	0,5	2,5	0,0	1,5	0,9	1,1
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Ibilgailuen mantentze-lanak: Tailerrak	Beti edo ia beti Astigarragan	47,4	53,1	24,2	59,0	43,7	62,3	54,8	42,1	50,3
	Batzuetan Astigarragan eta beste batzuetan Astigarragatik kanpo	6,0	5,1	2,7	6,5	4,1	5,0	8,0	5,6	5,5
	Beti edo ia beti Astigarragatik kanpo	27,1	23,3	19,6	27,0	30,0	26,0	25,7	20,2	25,2
	Ez da joaten	17,5	18,5	52,6	6,5	19,7	6,6	9,4	32,0	18,0
	Ed/Ee	2,0	0,0	0,9	1,0	2,5	0,0	2,0	0,0	1,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

		Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
		Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	19-29 urte	30-44 urte	<= 5 urte	6-10 urte	>10 urte	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
		%	%	%	%	%	%	%	%	%
Tabernak	Beti edo ia beti Astigarragan	54,9	51,7	39,1	58,0	46,9	49,0	59,8	58,0	53,3
	Batzuetan Astigarragan eta beste batzuetan Astigarragatik kanpo	37,7	42,7	50,0	37,0	47,1	45,9	26,0	38,6	40,2
	Beti edo ia beti Astigarragatik kanpo	5,4	4,3	8,9	3,5	4,4	3,6	9,5	3,4	4,9
	Ez da joaten	2,0	1,3	2,0	1,5	1,6	1,4	4,7	0,0	1,6
	Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Jatetxeak eta sagardotegiak	Beti edo ia beti Astigarragan	36,6	42,6	34,2	41,5	35,9	33,6	40,0	47,7	39,7
	Batzuetan Astigarragan eta beste batzuetan Astigarragatik kanpo	53,7	50,9	56,0	51,0	50,3	57,2	53,3	48,9	52,3
	Beti edo ia beti Astigarragatik kanpo	6,9	6,0	7,8	6,0	10,7	7,8	4,0	3,4	6,5
	Ez da joaten	2,8	0,5	2,0	1,5	3,1	1,4	2,7	0,0	1,6
	Ed/Ee	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
	Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

4.3. Internet bidezko erosketa

Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek internet bidez gehien erosten duten produktu-mota arropa eta oinetakoak dira: gazteen % 75ek erosten ditu internet bidez. Bigarren postuan etxetresna elektrikoak, ordenagailuak eta informatikako produktuak daude (% 61,6); hirugarren postuan altzariak, burdindegiko produktuak eta etxerako artikuluak (% 49,9), eta internet bidez gehien erosten den laugarren produktua bestelako produktu komertzialak dira (liburuak, landareak, optika, jostailuak, maskotak...) (% 43,1).

Drogeria, lurringintza eta etxeko garbiketa produktuen internet bidezko erosketa ez da hain ohikoa Astigarragako gazteen artean: % 16,1ek erosten dituzte, eta gazteek internet bidez gutxien erosten duten produktua elikagaiak dira, freskoak ez direnak (% 4,1) zein freskoak (% 1,2).

Emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago erosten dituzte internet bidez drogeriako, lurringintzako eta etxeko garbiketako produktuak (% 21,7 eta % 10,1) eta arropa eta oinetakoak (% 79,2 eta % 71,1). Gainerako produktuak, aldiz, gizonezkoek gehiago eskuratzen dituzte online.

Adinaren arabera, 30 eta 44 urte bitartekoek gehiago erosten dituzte ia produktu guztiak, bat izan ezik: etxetresna elektrikoak, ordenagailuak eta informatikako produktuak. Kasu honetan neurri berean erosten dute bi adin-tarteek.

92. grafikoa. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek internet bidez gehien erosten dituzten produktuak (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

70. taula. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek internet bidez gehien erosten dituzten produktuak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Arropa eta oinetakoak (kirol artikuluak barne)	79,2	71,1	73,7	75,5	66,7	79,9	75,2	77,2	75,0
Etxetresna elektrikoak, ordenagailuak eta informatikako produktuak	54,6	68,5	61,7	61,5	54,9	67,2	57,7	63,9	61,6
Altzariak, burdindegiko produktuak edo etxerako artikuluak	45,5	53,9	44,0	50,6	42,1	57,3	39,9	58,0	49,9
Bestelako produktu komertzialak	37,4	49,4	32,6	45,5	51,6	46,6	35,2	36,5	43,1
Drogeriako, lurringintzako eta etxeko garbiketako produktuak	21,7	10,1	12,7	16,7	11,6	22,7	17,0	11,7	16,1
Freskoak ez direnak	2,5	5,9	0,0	5,0	1,6	4,2	4,1	6,8	4,1
Elikagai freskoak	0,8	1,6	0,0	1,5	1,6	2,8	0,0	0,0	1,2

Iturria: Siadeco, 2024.

Astigarragako gazteak internet bidez kontsumitzera bultzatzen dituen bi arrazoi nagusi azpimarratu daitezke, eta bi arrazoi nagusi horiek erosten diren produktuen eskaintzarekin eta prezioarekin dute lotura. Batetik, eta internet bidez kontsumitzeko arrazoi nagusia litzatekeena, gazteek interneten aurkitzen duten produktu desberdinen aukera zabala dago: gazteen % 59,5ek adierazi du aukera zabal hori dela interneten kontsumitzera bultzatzen duen arrazoietako bat. Bigarren arrazoi nagusia, produktuen prezioa eta prezioen beherapenak eta deskontuak lirateke: gazteen % 50,5ek adierazi du alderdi hori interneten kontsumitzeko arrazoi modura.

Indar gutxiago dute hurrengo motibazio eta arrazoiek, eta bezeroaren erosketa ekintzaren erosotasunari lotutako motibazioak dira. Arrazoi horiek dira internetek desplazatu gabe erosteko ematen duen aukera (gazteen % 26,4k eman dute arrazoi hori) eta edozein egun eta ordutan erosteko aukera (% 12,3k adierazi dute arrazoi hori).

Askoz ere neurri baxuagoan aipatu dira ondorengo arrazoiak: produktuak etxean edo inguruan jasotzeko zerbitzua (% 2,6), ordaintzeko erraztasuna (% 1,9), produktuak itzuli, aldatu edo dirua berreskuratzeko aukera (% 1,1) eta modu librean erosteko aukera, presiorik gabe (% 0,7).

Beste arrazoien artean erosotasuna orokorrean, bigarren eskuko produktuak edo produktu zehatzak erosteko aukera, azkartasuna... aipatu dituzte.

93. grafikoa. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteen internet bidez erosteko arrazoiak (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

71. taula. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek internet bidez erosteko dituzten bi arrazoi nagusiak (lehenengo arrazoia, bigarren arrazoia eta bi arrazoi nagusiak batuta).

	Lehenengoa	Bigarrena	Guztira bi nagusiak
	%	%	%
Produktu desberdinen aukera zabala	39,1	20,4	59,5
Produktuen prezioa, beherapenak, deskontuak	19,1	31,4	50,5
Desplazatu gabe erosteko aukera	15,1	11,2	26,4
Edozein egun eta ordutan erosteko aukera	4,5	7,8	12,3
Produktuak etxean edo inguruan jasotzeko zerbitzua	0,0	2,6	2,6
Ordaintzeko erraztasuna	0,3	1,6	1,9
Produktuak itzuli, aldatu, dirua berreskuratzeko aukera	0,0	1,1	1,1
Modu librean erosteko aukera, presiorik gabe	0,4	0,3	0,7
Produktuen kalitatea	0,0	0,0	0,0
Besterik	8,8	2,7	11,5
Ed/Ee	0,7	9,0	0,7
Ez dagokio (Ez du internet bidez erosten)	11,9	11,9	11,9
Guztira	100,0	100,0	

Iturria: Siadeco, 2024.

Inkestatuen erantzunak alderatzen baditugu, internet bidez erosterakoen pisurik handiena hartzen duten arrazoietan daude alderik handienak.

- Interneten topatzen den produktu desberdinen aukera zabala gehiago aipatu dute gizonezkoek (% 65,1) eta 19 eta 29 urte artekoek (% 67,1), emakumezkoek (% 53,7) eta 30 eta 44 urte artekoek (% 57) baino.
- Gauza bera prezioekin, beherapenekin eta deskontuekin: internetera erakartzen dituen arrazoien artean dago, bereziki, gizonezkoentzat (% 58,3) eta gazteenentzat (% 61,1). Eta gutxiago konbentzitzen ditu emakumezkoak (% 42,3) eta 30 eta 44 urte artekoak (% 47,0).
- Emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago aipatu dute desplazatu gabe erosteko aukera internet bidez erosteko arrazoi moduan: emakumezkoen % 32k eta gizonezkoen % 21ek. Gainera, arrazoi horrek indar handiagoa du 30 eta 44 urte artekoetan (% 30), 19 eta 29 urte artekoetan baino (% 15,4).
- Azkenik, nabarmentzekoa da ordaintzeko erraztasuna gutxik baloratzen badute ere, gehiago direla 19 eta 29 urte bitartekoen artean (% 3,1) eta betidanik Astigarragan bizi direnen artean (% 3,8) –gazteagoak dira–.

72. taula. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteen internet bidez erosteko arrazoiak (bi arrazoi nagusiak batuta), generoa, adintartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Produktu desberdinen aukera zabala	53,7	65,1	67,1	57,0	61,8	58,9	58,8	58,7	59,5
Produktuen prezioa, beherapenak, deskontuak	42,3	58,3	61,1	47,0	55,1	49,5	48,6	49,0	50,5
Desplazatu gabe erosteko aukera	32,0	21,0	15,4	30,0	23,2	30,4	23,3	27,1	26,4
Edozein egun eta ordutan erosteko aukera	15,2	9,5	11,6	12,5	10,9	14,0	7,2	15,0	12,3
Produktuak etxean edo inguruan jasotzeko zerbitzua	3,1	2,2	0,0	3,5	3,1	2,8	4,0	1,2	2,6
Ordaintzeko erraztasuna	2,0	1,8	3,1	1,5	1,6	1,4	0,0	3,8	1,9
Produktuak itzuli, aldatu, dirua berreskuratzeko aukera	1,5	0,7	0,0	1,5	0,0	1,4	0,0	2,5	1,1
Modu librean erosteko aukera, presiorik gabe	0,8	0,5	1,1	0,5	0,0	1,4	0,0	0,9	0,7
Produktuen kalitatea	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Besterik	14,6	8,6	5,6	13,5	6,6	15,4	19,6	7,1	11,5
Ed/Ee	0,8	0,7	0,0	1,0	0,0	2,8	0,0	0,0	0,7
Ez dagokio (Ez du internet bidez erosten)	10,3	13,4	14,6	11,0	14,0	6,1	14,1	14,0	11,9

Iturria: Siadeco, 2024.

4.4. Astigarragatik kanpo egiten den erosketa eta arrazoi nagusiak

Azken 3 urteetako erosketan bilakaera

Astigarragako gazteen erdiak baino gehiagok (% 54,1), azken 3 urteak kontuan hartuta, gero eta gehiago erosten du Astigarragako denda txikietan; gero eta gutxiago erosten dutenak % 13,2 dira.

Batez bestekoaren gainetik kokatzen dira emakumezkoak (% 58,3 dira gero eta gehiago erosten dutela adierazi dutenak), 30 eta 44 urte artekoak (% 59) eta Astigarragara etorri berrienak direnak: Astigarragan 5 urte baino gutxiago eta 6 eta 10 urte artean daramatzatenak bizitzen (% 55,5 eta % 65,7, hurrenez hurren).

94. grafikoa. Azken 3 urteak kontuan hartuta, Astigarragako denda txikietan gero eta gehiago edo gero eta gutxiago erosten den |



Iturria: Siadeco, 2024.

73. taula. Azken 3 urteak kontuan hartuta, Astigarragako denda txikietan gero eta gehiago edo gero eta gutxiago erosten den, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Gero eta gehiago	58,3	50,1	39,5	59,0	55,5	65,7	49,3	45,9	54,1
Berdin	30,0	32,0	31,0	31,0	26,7	28,7	34,0	34,5	31,0
Gero eta gutxiago	11,2	15,0	24,2	9,5	14,5	5,6	14,7	17,8	13,2
Ez dut erosten Astigarragako denda txikietan	0,5	2,9	5,3	0,5	3,2	0,0	2,0	1,8	1,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

Gero eta gehiago erosten dutela diotenek erosotasuna eta gertutasuna, eskaintza zabaldu izana, herrian bizitza gehiago egiten duela (askotan, seme-alabak izan dituztelako eta gutxiago mugitzen direlako), konfiantza eta arreta, kontzientzia edo produktuen kalitatea aipatu dituzte, besteak beste.

Alaba jaio eta gero herrian gehiago erosten dugu

Andamos más por el pueblo, comodidad, optimizar tiempo

Bertakoek ez badute kontsumitzen etorkizunean kexatuko dira dendarik ez dagoelako. Kontzientzia.

Bertan gero eta bizitza gehiago egiten dudalako.

Bertatik ez mugitzeagatik eta ezagunak direlako jabeak

Betidanik gustatu zaidalako ahalik eta gertuen erostea

Bonuek laguntzen dute

Cercania, comodidad.

Con dos hijos cada vez paso más tiempo en el pueblo

Denbora eta bizitza gehiago egiten duelako bertan

Denbora gehiago egoten gara Astigarragan umea jaio denetik orduan gehiago kontsumitzen dugu herrian

Denda eta zerbitzu gehiago daudelako

Dendak inpulsatzeagatik

Donde vivo las tiendas están cerca, no necesito moverme.

Eguneroko betebeharrak asetzeko nahikoa dagoelako. Bertan bizi delako.

Erosketak egitera sarriago joaten naizelako. Kontzientzia.

Erosoagoa da herrian kontsumitzea inora mugitu gabe

Ez gara asko ateratzen herritik

Fomentar el pueblo

Gehiago baloratzen duelako Astigarragako komertzio txikia. Jendea gehiago ezagutzen du ere.

Gero eta aukera gehiago dagoelako

Gero eta erakargarriagoak direlako

Gero eta establezimendu gehiago daude eta ezagunagoak direlako

Gertutasuna eta komodidadeagatik. Kontzientziatuta nago Km0-ekin

Gertutasuna eta konfiantza

Gustoko dut bertan erostea. Komertzioa bizirik mantentzeko.

Gustura nagoelako tratuarekin

Haurrekin denbora eta bizitza gehiago herrian

Hay más supermercados

Helduagoa naizelako

Hemen bizia egiten dudalako. Hemen erosi behar da bultzada emateko.

Herria egiteagatik

Herria handitu da eta komertzio gehiago daude

Herrian aukera zabalagoa dagoenez, ez du beste inora joan behar.

Herriari laguntzeagatik

Kontzientzia, dirua herrian gastatzea nahiago dut.

Más consciente

Ohitu garelako bertan bizitza gehiago egitera, konfiantza, tratua merkatariekin...

Ordutegiak, haurra... Bizitza gehiago bertan egitea.

Pandemiagatik ohiturak aldatu nituen

Porque conozco los establecimientos. Por la calidad de los productos.

Produktua hobetu egin da

Sektore pribatuari laguntza egiteko

Astigarragan gero eta gutxiago erosten dutenek edo herrian erosten ez dutenek, aldiz, honako arrazoiak aipatu dituzte: aniztasun falta, prezioak, eskaintza urria, erosotasuna, interneten erosten duelako...

Etxetik urruti xamar daudelako komertzioak. Barietate faltagatik.

Aukera gutxi dagoelako

Lanetik gertu egiten ditudalako erosketak

Por falta de variedad

Herritik gehiago ateratzen naizelako

Denbora falta

Comodidad, una vez de ir al hiper compro todo alli

Eskaintza gutxi. Ordutegia murritza. Prezio altuak.

Lanagatik, gehiago mugitzen naizelako.

Gero eta denbora gutxiago pasatzen duelako bertan

Prezioen igoeragatik. Etxerako zerbitzua ez dutelako, eta besteek, bai.

Ez daukat ohiturarik

Normalean ez naiz erosketez arduratzen den pertsona

Erosotasunagatik

Ohitura dauka merkataritza handietan erostekoa

Porque no tienen lo que busco

Por comodidad compro fuera del barrio

Ez dago niretzako produktu askorik

Porque estoy más en Donostia

Hipermerkatuetan denetarik dagoelako

Interneten gehiago erosten dudalako

Astigarragatik kanpo non egiten den erosketa

Astigarragatik kanpo egiten denean erosketa, produktu-mota gehienetan erosketa hori Donostian egitea da normalena (Garbera barne). Bereziki altua da Donostiak duen pisua arropa eta oinetakoen erosketetan (% 79,4k arropa eta oinetakoak Donostian erosten dituztela adierazi dute), bestelako produktu komertzialetan —liburuak, landareak, optika, jostailuak, maskotak...— (% 59,3) eta etxetresna elektrikoak, ordenagailuak eta informatika produktuetan (% 50,3).

Altzariak, burdindegiko produktuak edo etxerako artikuluak erostera ere Donostiara joaten dira gehienak (% 33,5), baina kasu honetan bereziki altua da Oiartzunek duen pisua (% 23,3).

Drogeria, lurringintza eta etxeko garbiketarako produktuak ere Donostian erosten dira nagusiki (% 27,7), baina oso gertutik dago Hernani ere (% 25,8). Kasu honetan % 12,9k Oiartzunen erosten dituela adierazi dute.

Aldiz, elikagaien kasuan Hernanin egindako erosketak nagusitzen dira (nahiz eta Donostiara joaten direnen proportzioa oso gertu egon): freskoak ez diren elikagaiak Hernanin erosten dituzte gazteen % 24,8k (Donostian % 20,5ek eta Oiartzunen % 16,1ek), eta elikagai freskoak % 20k (Donostian % 17,4k eta Oiartzunen % 9,9k).

95. grafikoa. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek Astigarragatik kanpo non erosten duten produktu-mota bakoitza (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

74. taula. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek Astigarragatik kanpo non erosten duten produktu-mota bakoitza.

	Elikagai freskoak erosten al dituzu? %	Freskoak ez diren elikagaiak erosten al dituzu? %	Drogeria, lurringintza eta etxeko garbiketako produktuak erosten dituzu? %	Arropa eta oinetakoak (kirol artikuluak barne) erosten al dituzu? %	Altzariak, burdindegiko produktuak edo etxerako artikuluak erosten al dituzu? %	Etxetresna elektrikoak, ordenagailuak eta informatika produktuak erosten al dituzu? %	Bestelako produktu komertzialak (liburuak, landareak, optika, jostailuak, maskotak...) erosten al dituzu? %
Donostia (Garbera barne)	17,4	20,5	27,7	79,4	33,5	50,3	59,3
Hernani (Galarretako Lidl eta Mercadona barne)	20,0	24,8	25,8	2,3	8,3	4,0	7,4
Oiartzun (Mamut barne)	9,9	16,1	12,9	1,5	23,3	3,2	3,9
Belartza-Donostia (Mercadona, Decathlon)	1,8	4,5	4,2	3,1	0,0	0,0	0,4
Usurbil (Urbil barne)	0,4	1,2	1,7	1,0	2,2	0,0	0,7
Besterik	4,7	2,9	2,1	1,8	4,4	0,4	1,1
Ed/Ee	0,8	0,2	1,3	2,1	1,7	2,9	3,5
Ez dagokio	44,9	29,7	24,2	8,8	26,6	39,2	23,7
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

Astigarragako 19 eta 44 urteko inkestatuek kanpora jotzen dutenean, hiru joera nagusi dituzte:

- Lehenengo joera, eta nagusia, Donostiara jotzea da (Garbera, barne). Oso zabaldua dago astigartarren artean, hain zuzen, 19-44 adin-segmentuaren aretan hamarretik bederatzik jotzen du Donostiara (% 91,5). Bi/hiru produktu-mota erosten dituztenak ia erdia dira: laurden batek bi produktu-mota ezberdin erosten ditu (% 24,3), eta beste % 22,3k hiru produktu-mota. Lau produktu-mota baino gehiago erosten dituztenak beste laurden bat dira (% 26,7). Hau Donostiak eskaintzen dituen aukera guztien isla da: denetarik erosi daiteke bertan, eta astigartarrek bertan erosten dutena oso anitza da.
- Bigarren joera Hernanira joatea da, heren bat pasatxo joaten da (% 37,6), bertan kontsumitzen duten produktu-mota kopurua oraindik zabala da, baina Donostiakoa baino murritzagoa. Laurden batek Bi/hiru produktu-mota kontsumitzen ditu bertan: % 10ek, bi; eta % 13,3k, hiru.
- Hirugarren joera Oiartzungo Mamutera edo Lintziringo saltoki handietara joatea da, % 31,3k egiten du, eta batez ere produktu-mota bat erosten dute bertan (% 15,4). Gutxiago dira bi (% 8,2) edo hiru (% 5) produktu-mota erosten dituztenak.

75. taula. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek Astigarragatik kanpo zenbat produktu-mota erosten dituzten herri bakoitzean.

	Produktu mota bakarra %	2 produktu mota %	3 produktu mota %	4 produktu mota %	5 produktu mota %	6 produktu mota %	7 produktu mota %	Guztira herri horietara doazenak %
Donostia (Garbera barne)	18,4	24,3	22,1	15,1	8,2	2,8	0,6	91,5
Hernani (Galarretako Lidl eta Mercadona barne)	12,0	10,0	13,3	1,9	0,4	0,0	0,0	37,6
Oiartzun (Mamut barne)	15,4	8,2	5,0	1,7	1,0	0,0	0,0	31,3
Belartza-Donostia (Mercadona, Decathlon)	3,5	2,4	1,6	0,0	0,0	0,0	0,0	7,4
Usurbil (Urbil barne)	3,1	1,5	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	4,6
Besterik	5,6	1,1	1,9	0,4	0,0	0,0	0,0	9,0

Iturria: Siadeco, 2024.

Joera horiek aldagai ezberdinekin gurutzatzen baditugu, aldeak badaude, batez ere, generoarekin eta adinarekin loturik.

Emakumezkoek joera handiagoa dute Donostiara (Garbera, barne) edo Hernanira joateko: kanpora erosterakoan batez ere joaten direla esaten dute % 95ek eta % 39,8k, hurrenez hurren. Gizonekiko aldea nabarmena da, batez ere, Donostiaren kasuan. Gizonezkoen kasuan, joaten direnen proportzioa handiagoa da Belartzaren eta Usurbilen kasuan –nahiz eta aldeak txikiagoak izan–.

Oro har kanpoko herri guztietara gehiago joaten dira 30 eta 44 urte bitartekoak, gazteagoak baino –garraioagatik, seguraski–. Donostiaren kasuan, proportzio berean joaten dira bi adin-tarteak.

Hala ere, Donostiara joatea joera orokortua da: Astigarragan jaiotakoak eta bertara bizitzera etorritakoak maila berean joaten dira, ez dago apenas alderik.

76. taula. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteek Astigarragatik kanpo non erosten duten, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		**Adina**		**Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen**				**Guztira**	
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan		
	%	%	%	%	%	%	%	%	%	N
Donostia (Garbera merkataritza-gunea barne)	95,0	88,2	91,7	91,5	90,1	91,0	94,5	91,4	91,5	275
Hernani (Galarretako Lidl eta Mercadona barne)	39,8	35,5	18,3	44,0	31,0	38,3	52,1	33,3	37,6	113
Oiartzun (Mamut merkataritza-gunea barne)	31,3	31,3	12,7	37,5	42,3	36,9	25,6	21,3	31,3	94
Belartza-Donostia (Mercadona, Decathlon)	6,4	8,4	5,8	8,0	7,7	9,4	10,4	3,7	7,4	22
Usurbil (Urbil merkataritza-gunea barne)	4,3	4,9	2,0	5,5	6,3	5,0	6,0	2,1	4,6	14
Besterik (Andoain, Barakaldo, Tolosa, etab.)	7,1	10,8	2,9	11,0	10,3	8,4	14,7	4,9	9,0	
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	

Iturria: Siadeco, 2024.

Astigarragatik kanpo erosteko arrazoiak

Astigarragako gazteei Astigarragatik kanpo zergatik joaten diren erostera arrazoitzeko eskatuta, gehiengoak adierazi du herrian baino denda eta produktuen aukera zabalagoa dagoelako joaten dela (% 73).

Herritik kanpo erosteko bigarren arrazoi nagusia produktuen prezioa, beherapenak eta deskontuak dira Astigarragako gazteentzat (% 37,9); hirugarren arrazoia erosotasuna da —desplazatzeko erraztasuna, aparkamendua...— (% 29,3); eta laugarren tokian denbora librearekin eta aisialdiarekin uztartzeko ematen duen aukera (% 17,8).

Gainontzeko arrazoiak askoz ere maila baxuagoan aipatu dira: produktuen kalitatea, % 5,3, harreman pertsonala eta merkatariekiko konfiantza, % 4,3, produktuak modu librean ukitzeko edo probatzeko aukera, % 1, establezimenduen ordutegia, % 0,8, eta azkenik, txartelarekin ordaintzeko aukera, % 0,3

96. grafikoa. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteen Astigarragatik kanpo erosteko arrazoiak (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

77. taula. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteen Astigarragatik kanpo erosteko arrazoi nagusiak (lehenengo arrazoia, bigarren arrazoia eta bi arrazoi nagusiak batuta).

	Lehenengoa	Bigarrena	Guztira bi nagusiak
	%	%	%
Denda eta produktuen aukera zabala	53,9	19,1	73,0
Produktuen prezioa, beherapenak, deskontuak	17,0	20,9	37,9
Erosotasuna (desplazamendua, aparkamendua...)	10,7	18,6	29,3
Denbora librearekin eta aisialdiarekin uztartzeko ematen duen aukera	4,1	13,7	17,8
Produktuen kalitatea	2,5	2,8	5,3
Harreman pertsonala eta merkatariekiko kontiantza	1,5	2,8	4,3
Produktuak modu librean ukitzeko, probatzeko aukera	0,0	1,0	1,0
Establezimenduen ordutegia	0,0	0,8	0,8
Txartelarekin ordaintzeko aukera	0,3	0,0	0,3
Produktuak itzuli, aldatu, dirua berreskuratzeko aukera	0,0	0,0	0,0
Besterik, zehaztu	7,3	1,9	9,1
Ed/Ee	2,4	17,9	2,4
Ez dagokio (Ez du Astigarragatik kanpo erosten)	0,5	0,5	0,5
Guztira	100,0	100,0	

Iturria: Siadeco, 2024.

Inkestatuen erantzunak alderatzen baditugu, Astigarragatik kanpo erosterakoan gazteek aipatutako arrazoietan badaude aldeak:

- Denda eta produktuen aukera zabala arrazoi nagusi moduan ikusten dute denek, baina emakumezkoek (% 75,7) eta 19 eta 29 urte artekoek (% 79,1) indar handiagoarekin aipatu dituzte.
- Produktuen prezioa erabakigarriagoa da 19 eta 29 urte arteko gazteentzat: ia erdiak jarri du arrazoi moduan (% 48,2).
- Erosotasunari erreferentzia egin diote gizonezkoek (% 31,7) emakumezkoek (% 26,8) baino gehiago, eta 30 eta 44 urte artekoek (% 34,5) gazteagoek (% 13,8) baino indar handiagoarekin.
- Aldiz, aisialdiarekin uztartzeko aukera gehiago baloratzen dute gazteenek, 19-29 adin-tartekoek (% 26,4), baita gizonezkoek ere (% 24,9), emakumezkoek baino nabarmen gehiago, gainera (% 10,5).

78. taula. Astigarragako 19 eta 44 urte arteko gazteen Astigarragatik kanpo erosteko arrazoiak (bi arrazoi nagusiak batuta), generoa, adintartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Denda eta produktuen aukera zabala	75,7	70,5	79,1	71,0	67,3	79,0	67,2	75,8	73,0
Produktuen prezioa, beherapenak, deskontuak	37,5	38,3	48,2	34,5	42,9	33,3	34,4	40,3	37,9
Erosotasuna (desplazamendua, aparkamendua...)	26,8	31,7	13,8	34,5	23,2	34,1	35,6	26,1	29,3
Denbora librearekin eta aisialdiarekin uztartzeko ematen duen aukera	10,5	24,9	26,4	15,0	26,1	13,1	14,2	17,8	17,8
Produktuen kalitatea	4,3	6,2	3,1	6,0	6,3	4,2	8,0	3,7	5,3
Harreman pertsonala eta merkatariekiko kontiantza	5,1	3,5	2,0	5,0	6,3	4,2	4,0	2,9	4,3
Produktuak modu librean ukitzeko, probatzeko aukera	1,5	0,5	1,1	1,0	0,0	0,0	4,0	0,9	1,0
Establezimenduen ordutegia	1,5	0,0	0,0	1,0	1,6	1,4	0,0	0,0	0,8
Txartelarekin ordaintzeko aukera	0,0	0,5	1,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,9	0,3
Produktuak itzuli, aldatu, dirua berreskuratzeko aukera	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Besterik, zehaztu	13,5	4,9	2,0	11,5	6,3	9,8	10,1	10,2	9,1
Ed/Ee	2,2	2,5	4,9	1,5	3,7	1,4	2,0	2,4	2,4
Ez dagokio (Ez du Astigarragatik kanpo erosten)	0,9	0,0	1,8	0,0	0,9	0,0	0,0	0,7	0,5

Iturria: Siadeco, 2024.

4.5. Astigarragako merkataritzak eskaintzen dituen zerbitzuak

Astigarragako merkataritzak eskaintzen dituen zerbitzuen balorazioa

Astigarragako txikizkako merkataritzaren zenbait alderdi baloratzeko eskatu zaie herriko gazteei 1etik 10erako eskala batean. Jasotako balorazioak positiboak izan direla esan daiteke, baloraziorik baxuena 5,8 puntukoena eta altuena 8,6 puntukoa izan direlarik.

8,6 puntuko balorazioarekin bezeroari eskainitako tratua eta arreta da herriko gazteek gehien baloratzen dutena herriko merkataritzan –hobeto baloratzen dute emakumezkoek eta herrian 10 urte baino gehiago bizitzen daramatzatenek eta bertan jaioek–. Oso ondo baloratzen da ere, 8,3 punturekin, euskara erabiltzeko herriko merkataritza establezimenduek ematen duten aukera. Eta hirugarren baloraziorik altuena, 8 punturekin, zabaltzeko eta ixteko ordutegiari eman zaio; kasu honetan, okerrago baloratzen dute Astigarragara duela gutxi bizitzera etorri direnek.

Balorazio onarekin baina bigarren maila batean kokatzen dira ondorengo alderdiak: produktuen kalitatea (7,8 puntu), saltokien hurbiltasun fisikoa (7,8 puntu), ingurumenarekiko eta jasangarritasunarekiko erakusten duten jarrera (7,7 puntu) eta bertako produktuak edo Km-0 produktuak erosteko ematen duten aukera (7,7 puntu). Eta 7,3 punturekin saltokien irudia-itxura eta berritze-maila legoke.

Okerren baloratu diren Astigarragako txikizkako merkataritzaren alderdiak produktuen prezioa, beherapenak eta deskontuak (6,3 puntu), eskaintzaren komunikazioa (6,1 puntu) —bai web-orriaren zein sare sozialen bidez, bai publizitatearen bidez— eta denda eta produktuen aniztasuna eta barietatea dira (5,8 puntu).

Emakumezkoek gizonezkoek baino hobeto baloratzen dituzte zenbait alderdi: saltokien hurbiltasuna, prezioak eta beherapenak eta eskainitako tratua eta arreta. Aldiz, ingurumenarekiko eta jasangarritasunarekiko erakusten duten jarrera hobeto baloratzen dute gizonezkoek.

Adinaren arabera, 19 eta 29 urte artekoek balorazio baxuagoa ematen diote produktuen kalitateari eta establezimenduen komunikazioari.

97. grafikoa. Astigarragako txikizkako merkataritzaren eta denden balorazioa (0tik 10erako eskala batean)



Iturria: Siadeco, 2024.

79. taula. Astigarragako txikizkako merkataritzaren eta denden balorazioa (0tik 10erako eskala batean), generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa	Batez bestekoa
Bezeroari eskainitako tratua eta arreta	8,7	8,4	8,5	8,6	8,4	8,5	8,7	8,6	8,6
Euskara erabiltzeko ematen duten aukera	8,3	8,4	8,3	8,3	8,4	8,5	8,3	8,2	8,3
Zabaltzeko eta ixteko ordutegia	8,0	8,0	7,9	8,0	7,7	8,2	7,9	8,2	8,0
Saltokien hurbiltasun fisikoa	8,0	7,7	7,8	7,9	7,7	8,1	8,0	7,7	7,8
Produktuen kalitatea	7,9	7,7	7,6	7,9	7,6	8,0	7,9	7,7	7,8
Bertako produktuak / Km 0-ko produktuak erosteko aukera	7,7	7,8	7,7	7,7	7,9	7,6	7,8	7,7	7,7
Ingurumenarekiko eta jasangarritasunarekiko erakusten duten jarrera (birziklatzen diren poltsak, papera...)	7,6	7,9	7,8	7,7	7,8	7,9	7,5	7,6	7,7
Saltokien irudia-itxura eta berritze-maila	7,3	7,4	7,4	7,3	7,4	7,4	7,1	7,4	7,3
Produktuen prezioa, beherapenak, deskontuak	6,6	6,0	6,1	6,3	6,2	6,4	6,3	6,1	6,3
Eskaintzaren komunikazioa: bai web orriaren zein sare sozialen bidez, bai publizitatearen bidez	6,1	6,0	5,9	6,1	6,0	6,2	5,8	6,1	6,1
Denda eta produktuen aniztasuna eta barietatea	5,8	5,8	5,7	5,8	5,9	6,0	5,7	5,6	5,8

Iturria: Siadeco, 2024.

Erosketa bultzatzen duten informazio-kanalak

Astigarragako gazteei galdetu zaie ea informazio-kanal ezberdinetatik jasotako informazioak bultzatzen ote dien saltoki fisiko batean erostera. Informazio-kanal bakoitza zein neurritan aipatzen den aztertu aurretik esan beharra dago, oro har, informazio-kanal ezberdinetatik jasotako informazioak kontsumitzera bultzatzen dutela esan dutenen ehunekoak baxuak direla informazio-kanal guztietarako; hau da, gehienek (% 70 eta % 84 artean kanal ezberdinetarako) adierazi dute informazioa jasotzeak ez duela kontsumoa bultzatzen.

Astigarragako gazteen iritziz beraien kontsumoa gehien sustatzen duen informazioa webguneen edo sare sozialen bidez jasotzen dutena da: denda, kate edo marka handien webgunearen edo sare sozialen bidez jasotzen duten informazioa gazteen % 30,1ren ustez, eta herriko denda txikien webguneren edo sare sozialen bidez jasotzen dutena % 23,4ren ustez.

Tokiko hedabideetatik jasotako informazioak erostera bultzatzen dituela diotenak % 23 dira; kaleko euskarri fisikoak % 22,6 eta hedabide orokorrak % 19,9.

Astigarrako Astiko merkatari, ostalari eta zerbitzuen elkartearen webgunean erostera bultzatzen ditu % 16,9; eta azken postuan sare sozialetako publizitate ordaindua da, % 15,6rekin.

98. grafikoa. Erosketa bultzatzen duten informazio-kanalak (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

Kasu guztietan, emakumezkoek gehiago jotzen dute informazio-kanal guztietara. Nabarmentzekoa da herriko denda txikiaren beraren webgunearen edo sare sozialen bidez gehiago informatzen dela emakumezkoa gizonezkoa baino bertan erosi aurretik: % 32,6 eta % 14,6, hurrenez hurren.

Adinari erreparatuta, 30 eta 44 urte bitartekoen artean eragin gehiago dute informazio-kanal ia gehienek. Baina denda, kate edo marka handien webguneen edo sare sozialen bidez informatu ondoren erosten dutenak gehiago dira 19 eta 29 urte arteko gazteak (% 36,5), 30 urtetik gorakoak baino (% 28).

80. taula. Erosketa bultzatzen duten informazio-kanalak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Denda, kate edo marka handien webgunea edo sare sozialak	35,8	24,7	36,5	28,0	22,8	26,6	31,7	38,0	30,1
Herriko denda txikiaren beraren webgunea edo sare sozialak	32,6	14,6	12,5	27,0	11,9	30,9	26,5	23,9	23,4
Tokiko hedabideak	29,8	16,4	13,8	26,0	13,5	28,0	27,3	23,3	23,0
Kaleko euskarri fisikoak	25,4	19,9	16,7	24,5	11,9	30,8	27,7	20,5	22,6
Hedabide orokorrak	26,0	14,0	19,4	20,0	13,4	21,0	28,6	18,6	19,9
Astiko Elkartearen webgunea	19,8	14,0	10,5	19,0	10,3	19,6	20,5	17,4	16,9
Sare sozialetako publizitate ordaindua	18,3	13,1	16,0	15,5	12,9	14,0	21,3	15,8	15,6

Iturria: Siadeco, 2024.

Martxan jarri daitezkeen zerbitzuen erabilera

Astigarragako merkataritza-establezimenduek zerbitzu berriren bat martxan jarriko balute erabiliko luketen galdetuta, nobedadeak jasotzeko sistemaren baten ezarpena da erabilera handiena izango lukeena: gazteen % 67,5ek mota horretako sistemaren bat erabiliko luketela adierazi dute.

Herriko establezimenduetako erosketa jasotzeko takilak jarriz gero erabiliko ote liratekeen galdetuta, % 59,4k erabiliko lituzketela adierazi dute. Herriko establezimenduetan erosketak online egiteko guneren bat jarriko balitz % 54,7 dira erabiliko luketenak; eta azkenik, etxez etxeko banaketa sistema bat ezarrita, % 48,1ek erabiliko luke.

Zerbitzu guztiak gehiago erabiliko lituzkete emakumezkoen gizonezkoek baino, eta 30 eta 44 urtekoek gazteagoek baino.

99. grafikoa. Astigarragako merkataritza-establezimenduek ondorengo zerbitzuren bat martxan jarriko balute zerbitzu hori erabiliko luketen gazteak (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

81. taula. Astigarragako merkataritza-establezimenduek ondorengo zerbitzuren bat martxan jarriko balute zerbitzu hori erabiliko luketen gazteak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Nobedadeak jasotzeko sistema bat	77,1	58,4	54,1	72,0	68,5	69,7	72,6	61,9	67,5
Herriko establezimenduetako erosketa jasotzeko takilak	61,2	57,7	53,2	61,5	62,8	64,9	52,5	56,3	59,4
Online erosketarako gune bat	61,5	48,1	40,1	59,5	48,3	65,3	53,3	51,2	54,7
Etxez etxeko banaketa-sistema	53,7	42,8	39,4	51,0	56,0	43,0	52,6	43,6	48,1
Besterik	0,0	0,7	0,0	0,5	0,0	1,4	0,0	0,0	0,4

Iturria: Siadeco, 2024.

4.6. Astiko elkartea eta Guztion Azoka: ezagutza eta balorazioa

Astiko elkartea

Astiko elkartea ezagutzen duten edo ez galdetuta, Astigarragako 10 gaztetatik 8k ezagutzen du elkartea (% 80,3); horien artean, % 47k gainera asko edo nahikoa ezagutzen dutela adierazi dute.

Ezagutza hori aldakorra da ondorengo aldagaien arabera (asko edo nahikoa ezagutzen dutenak):

- Emakumezkoek gehiago ezagutzen dute gizonezkoek baino: emakumezkoen % 51,2k asko edo nahiko ezagutzen du elkartea, eta gizonezkoen % 42,9k.
- Adinaren arabera, 30 eta 44 urte artekoetan ezagunagoa da elkartea: % 52,5ek ezagutzen du asko edo nahikoa eta 19 eta 29 urte artekoetan % 30,5ek.
- Astigarragan bizitzen daramaten denborak ere eragiten du Astiko elkartearen ezagutzan: elkartea ezagunagoa da beti Astigarragan bizi izan direnentzat (% 54,3) edo Astigarragan 10 urte baino gehiago daramatzatenentzat (% 61,9).

100. grafikoa. Zein neurritan ezagutzen den Astigarragako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen Astiko Elkarteak antolatzen dituen ekintzak (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

82. taula. Zein neurritan ezagutzen den Astigarragako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen Astiko Elkarteak antolatzen dituen ekintzak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Asko	11,8	13,0	4,7	15,0	6,2	9,8	19,3	15,3	12,4
Nahikoa	39,5	29,9	25,8	37,5	25,4	32,2	42,6	39,0	34,6
Gutxi	31,5	35,1	34,4	33,0	37,1	39,1	24,0	31,1	33,3
Ezer ez	17,1	21,4	35,1	14,0	31,3	17,5	14,2	14,6	19,3
Ed/Ee	0,0	0,7	0,0	0,5	0,0	1,4	0,0	0,0	0,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

Elkarteak antolatzen dituen ekintzak zein neurritan diren erakargarriak galdetuta, 10etik 7 gaztek jarduera horiek oso edo nahiko erakargarriak direla adierazi dute (% 70,8). Adinaren arabera, 19 eta 29 urte artekoei baino erakargarriagoak suertatu zaizkie jarduera horiek 30 eta 44 urte artekoei (% 66,1 eta % 71,9, hurrenez hurren).

101. grafikoa. Zein neurritan iruditzen diren erakargarriak Astiko Elkarteak antolatzen dituen ekintzak (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

83. taula. Zein neurritan iruditzen diren erakargarriak Astiko Elkarteak antolatzen dituen ekintzak, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Oso erakargarriak	19,1	16,7	10,0	19,9	17,3	15,5	17,8	20,3	17,9
Nahiko erakargarriak	51,6	54,2	56,1	52,0	53,8	49,6	48,7	57,5	52,9
Ez oso erakargarriak	16,7	19,9	25,7	16,4	18,1	19,3	24,8	13,5	18,3
Batere erakargarriak ez	1,9	2,6	1,7	2,3	1,7	1,7	4,7	1,4	2,2
Ed/Ee	10,8	6,8	6,5	9,4	9,1	13,8	4,1	7,3	8,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

Guztion Azoka

Astigarragako 10etik 7 gaztek izan du Guztion Azoka deskontu-bonuen kanpainaren berri (% 70). Emakumezkoak eta 30 eta 44 urte arteko gazteak dira deskontu-bonuen kanpainaren berri gehien izan dutenak (% 72 eta % 79, hurrenez hurren). 19 eta 29 urte arteko gazteetan baxua da kanpainaren berri dutenen ehunekoa: % 43,2, baita Astigarragara etorri berriak direnen artean ere, % 50.

102. grafikoa. Astigarragako Guztion azoka deskontu-bonuen kanpainaren ezagutza (%) |

Iturria: Siadeco, 2024.

84. taula. Astigarragako Guztion azoka deskontu-bonuen kanpainaren ezagutza, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Bai	72,0	68,2	43,2	79,0	50,0	81,9	82,6	67,7	70,0
Ez	28,0	31,8	56,8	21,0	50,0	18,1	17,4	32,3	30,0
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

Deskontu-bonuen kanpaina ezagutzen dutenei kanpaina baloratzeko eskatuta, ia hamarretik bederatzi gazteri kanpaina oso edo nahiko erakargarria suertatzen zaio (% 89,2). Kanpaina erakargarriagoa da emakumezkoentzat (% 93,3rentzat oso edo nahiko erakargarria da), 19 eta 29 urte artekoentzat (% 95,9rentzat oso edo nahiko erakargarria da) eta betidanik Astigarragan bizi direnen gazteentzat (% 96rentzat oso edo nahiko erakargarria da).

Kanpaina ezagutu arren, gizonezkoek eta Astigarragara etorri berriak diren gazteek egiten dute kanpainari buruzko baloraziorik okerrena: gizonezkoen % 3,3rentzat kanpaina ez da batere edo ez da oso erakargarria, eta Astigarragan 5 urte baino gutxiago daramatzatenen % 6,2arentzat ez da batere edo ez da oso erakargarria.

103. grafikoa. Zein neurritan iruditzen den erakargarria Guzion Azoka deskontu-bonuen kanpaina (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

85. taula. Zein neurritan iruditzen den erakargarria Guztion Azoka deskontu-bonuen kanpaina, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emakumezkoa	Gizonezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Oso erakargarria	49,1	36,6	38,7	43,7	37,6	34,2	44,3	54,2	42,9
Nahiko erakargarria	44,2	48,4	57,2	44,3	46,8	57,2	36,3	41,8	46,3
Ez oso erakargarria	6,6	11,8	4,2	10,1	9,4	6,8	19,4	4,0	9,2
Batere erakargarria ez	0,0	1,1	0,0	,6	3,1	0,0	0,0	0,0	,5
Ed/Ee	0,0	2,1	0,0	1,3	3,1	1,7	0,0	0,0	1,1
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

Deskontu-bonuek herrian gehiago kontsumitzera zein neurritan bultzatzen duten galdetuta, gazteen erdiak baino gehiagok adierazi dute mota horretako deskontu-bonuek (Guztion Azoka, Euskadi Bono Denda...) asko edo nahikoa bultzatzen dutela herrian gehiago kontsumitzera (% 55,5). Emaitzak aztertuta, badirudi emakumezkoen artean eta 30 eta 44 urteko gazteen artean sustatzen dutela kontsumoa deskontu-bonuen sistemek: emakumezkoen % 58k adierazi dute asko edo nahiko bultzatzen dutela, eta 30 eta 44 urte artekoan % 60,5ek.

104. grafikoa. Astigarragako deskontu-bonuek eta antzekoek zein neurritan bultzatzen duten herrian gehiago kontsumitzera (%)



Iturria: Siadeco, 2024.

86. taula. Astigarragako deskontu-bonuek eta antzekoek zein neurritan bultzatzen duten herrian gehiago kontsumitzera, generoa, adin-tartea eta Astigarragan bizitzen daramatzan urteen arabera.

	Generoa		Adina		Zenbat urte daramatzazu Astigarragan bizitzen				Guztira
	Emaku-mezkoa	Gizo-nezkoa	19-29 urte	30-44 urte	5 urte baino gutxiago	6-10 urte	10 urte baino gehiago	Beti bizi izan naiz Astigarragan	
	%	%	%	%	%	%	%	%	%
Asko	21,5	23,2	14,5	25,0	11,0	32,2	28,5	18,9	22,4
Nahikoa	36,5	29,9	25,8	35,5	24,4	36,0	26,5	41,3	33,1
Gutxi	21,5	20,5	21,1	21,0	24,8	14,5	25,6	21,1	21,0
Ezer ez	13,1	19,0	25,5	13,0	26,5	11,7	14,7	12,7	16,1
Ed/Ee	7,4	7,4	13,1	5,5	13,4	5,6	4,7	6,0	7,4
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Siadeco, 2024.

Galdetu gabe, inkestatuekin izandako elkarrizketetan Astiko Elkarteaz galdetuta, bonuen kanpainari lotutakoak izan dira egindako iruzkin gehienak. Kanpainaren balorazioa ona da eta uste dute eragin positiboa duela herriko merkataritzan, baina segituan agortzen direla adierazten dute gehienek. Askok Astiko horrekin besterik ez dute lotzen: deskontu-bonuen kanpainarekin.

Bono denda oso azkar bukatzen dira, gehiago jarri beharko zituzten.

Deskontu bonu eta antzekoei esker ezagutzen ez zituen denda edo zerbitzuetara jo du

Deskontu bonuen kanpainaz informazio gutxi eta beti berandu heltzen da

Konturatu orduko deskontu bonuak agortuta

Bonuak bultzatu egiten dute erosketa herrian

Deskontu bonuekin jarraitzea

Nahiko kritikoa, bonuak egun berean bukatzen dira.

Deskontu bonuen kanpaina baino ez du ezagutzen

Deskontu bonuez gain, ez ditu beste jarduerarik ezagutzen.

Bonoak ineresgarriak dira, baina hilaren bukaeran ateratzen dituzte, nik ez dut dirurik izaten, hilaren hasieran ateraz gero hartu ahalko nuke

Bonuak, etab. jende asko bultzatzen du erostera Astigarragan, niri ez gehiegi

Bonoak azkar gastatzen dira, ez dira oferta oso handiak ere

Salvo los bonos, no hay nada más interesante

Bestela ere Astiko ondo eta ez hain ondo baloratzen dutenak daude. Batzuek diote laguntzen duela herriko merkataritza sustatzen eta herritarrak kontzientziatzen, baina beste batzuen ustez, nahiz eta saiatu, ez du lortzen herritarrengana iristea. Informazio falta kritikatu dute batzuek, eta dagoena euskaraz besterik ez dagoela beste batek.

Ondo dagoela iruditzen zait, ze ASTIKO herriko dendak sustatzen laguntzen duela uste dut

Azkenaldian gehiago mugitzen ari dira, positiboa iruditzen zait jendea kontzientziatzeko.

Interesgarria bertako bizilagunak erakartzeko

Saiatzen dira, baina ez daki konektatzen duten herritarrekin

Son muy escasas las cosas que hacen

No recibe información

Informazioa ez da heltzen

Casi todo es en euskera y yo no me entero y no le hago caso

4.7. Astigarragan merkataritza sustatzeko herritarren eskaerak eta proposamenak

Astigarragako 19 eta 44 urte bitarteko herritarrek Astigarragan erostea erakargarriagoa izan dadin proposamenak egin dituzte. Horiek bederatzi multzotan sailkatu ditugu:

- **Eskaintza areagotzea:**

  Aniztasun gehiago (arraindegi, arropa/zapata denda...) kanpora joan beharra dago nahi eta ez.

  Arraindegi eta harategi denda bana auzoan

  Arraindegi on bat, arratsaldez ere irekita eta eguneroko produktuekin.

  Arraindegia, arropa dendak falta dira. Zona berrian kajeroren bat ondo legoke

  Arraindegia eta okindegi faltan daude Urumea-Berri aldean, eguneroko produktu freskoak erosteko lekua (supermerkatua izan gabe)

  Barietate gehiago. Arraindegia. Herria merkatal gune txikia bilakatu.

  Barietate gehiago. Poblazioa handitu da eta komertzioa ez da neurri berean hasi.

  Beste motatako produktuak jartzea. Arropa denda gehiago.

  Denda gehiago, aniztasun gehiago. Merkatu tradizional bat. Baserritarrak gehiagotan ez bakarrik aste barruan. Arraindegi eta harategi bat auzoan.

  Denda gehiago, harategi eta arraindegi. Dena zentroan dago, tabernaz josita

  Denda txikiak falta dira, Hernaniekin konparatuta hilda dago Astigarraga, arropa, harategia, arraindegia, fruta oso gutxi dago.

  Denetarik erosi ahal izateko merkatu bat, desplazatu ez izateko.

  Erosketa handia bertan egin izateko, denetarik duen supermerkatu handi bat.

  Hipermerkatu handi bat egitea

  Informatikako denda bat, arropa denda gehiago

  Komertzio basiko gehiago falta da, arraindegia. Ordutegi gehiago izatea. On-line erosteko aukera.

  Los productos de la azoka de los caseros los pondría por las tardes o los sábados, sino no puedo acudir por el trabajo. Pondría más días los puestos de los productos caseros que ponen en el barrio.

  Merkatu handi bat denda guztiak bertan egon daitezen eta bertan edukitzea produktu guztiak eta horrela ez gara komertzio guztietatik pasa behar. Denak bateratu.

Merkatu handiagoa

Un mercado como el de Renteria con negocios y tiendas diferentes

Zerbitzu basikoak daude Astigarragan baina bestelako zerbitzuak behar dira, arropa denda. Gehiago arriskatu behar luke Astigarragako komertzioak

2. eskuko azoka eta gauzak konpontzeko eta berrerabiltzeko tailerrekin, erramintak alokagai...

Una barbería, un gimnasio (al del polideportivo le faltan cosas)

Una tienda de informática

- **Bertako produktuak eta kalitatezkoak eskaintzea:**

Bertako produktu gehiago

Hemengo produktuak izatea saltzeko

Más calidad, en mi zona donde yo vivo no la hay, en el centro hay más calidad en los productos

Más productos Km0, más caseros vendiendo, que haya más variedad de tiendas (carnicería, pescadería hay poco)

Mejorar la publicidad y calidad de los productos

- **Aparkalekuak hobetzea:**

Aparkaleku plaza gehiago, herrian erosketak egin ahal izateko. Beteta egoten dira eta beste norabaitera doaz.

Aparkaleku urruti dago. Zerbitzu ezberdinak ez daude eta mugitu behar gera. Prezioak asko garestitu dira.

- **Denden itxura eta eskaintzen dituzten zerbitzuak berritzea:**

Actualizar los establecimientos

Aipatu diren aukeratzeko horiek (internet bidezko salmenta takillak...) jartzea ondo legoke izan ere: gertutasuna, presentziala, arreta ona, etab. Badute baina pizgarri bat behar dute gaur egungo kontsumo ohiturak horrela direlako

Banaketa etxez etxe egitea

Orokorrean denden itxura pixkat gehiago zaindu behar da, batez ere lehendikan esistitzen direnak.

Produktuak jasotzeko takillak, beharrezkoak. Ordutegiak handitzea.

Webgune bat promozio eta deskontuak ikusteko. Sistemari buelta bat eman, bultzada egiteko komertzioari.

- **Prezioak jaistea eta deskontu-bonuen kanpaina indartzea:**

Bajar los precios

Ez da beraien errua, gure ohiturak dira. Prezioak jaitsi, gehiago kontsumitzeko.

Más ofertas y rebajas

Más promociones, ofertas. Está todo aquí (tiendas de todo) pero igual falta una charcutería y más pescaderías, solo hay una.

Prezioak asko egiten du, nik arraina ez dut jan aspaldian, fruta ere berdin, badakit Zubitxo edo baserritar baten fruta eta supermerkatukoa ez direla gauza bera baina oso justu nabil hilabete bukaerara iristeko

Prezioak jaitsi, baina ez dago beraien esku

El Ayuntamiento u otra administración pública debería ayudar económicamente al comercio local para que ajustara sus precios y pudieran resultar mas competitivos

Bono deskontu gehiago eta gehiagotan

En enterarnos de ofertas y de bonos. Hacer cosas que nos interesen para no ir a comprar fuera.

Guztion azoka bonoak gutxienez urtean bi aldiz, eta publizitate handiagorekin.

- **Ordutegiak hobetzea:**

Eguerdian ez ixtea. Erraztasunak erosketak jasotzeko. Arraindegi bat auzo honetan.

Ez asko, hori norberaren gauza da. Ordutegiak handitu eguerdian.

Ordutegi zabalagoak, kanpoan lan egiten dutenek oso zaila bertan erostea.

Ordutegiak handiagotu, eguerdian batez ere.

- **Udalak bertako merkataritza sustatzea:**

Alguna feria para ver todos los productos/tiendas que hay. Incentivar el consumo local desde el ayto.

Gazteei zuzendutako kanpaina bereziak

Gazteekin gehiago zentratzea, guretzako erakargarriagoa izan dadin bertan erostea.

Kontsumo alternatiboa bultzatu

Udalak beste ideologia bat eduki beharko luke, ez du nahikoa egiten denda txikiei laguntzeko.

Jakitun naiz zaila dela, baina lokal asko hutsik daude. Agian laguntza gehiago denda berriak irekitzeko, bestelako ideiak...

- **Komunikazioa hobetzea:**

  Beraien eskaintza herritarrengana helarazteko medio gehiago. Ez daki askotan, behar duena herrian saltzen den ala ez.

  Bezero potentzialetara heltzeko kanalak indartu, publizitatea, internet, sareak...

  Komunikazio gehiago

  Komunikazio publikoa hobeagoa, prezio konpetitibo gehiago, oferta gehiago eta eraginkorrak, valor añadido, opariak bezala bertan kontsumitzeko estimatua bezala sentitzea bezero baita. On line saltzea

  Komunikazioa, aukera zabalagoa, jendeari lagungarri izango diren zerbitzuak eskeini... Euskara zaindu, taberna askotan menuak gaztelania hutsez, langile berrien begirune eskasa...

  Informazioa helarazteko ahalegin handiagoa, ez gara enteratzen. Garraio sistema publiko hobea.

  Publizitate eta marketing gehiago

- **Euskarazko arreta sustatzea:**

  Denda guztiak euskara egiteko aukera ematea. Prezio konpetitiboagoak. Eskaintza handiagoa.

  Etorkin langile berriei euskara gutxieneko bat irakastea. Bonu eta deskontu kanpaina zabalagoak.

  Euskararekiko begirune handiagoa

  Komertzio berriak, euskara gehiago

  Nagusien aldetik langile berriei euskararen garrantziaz ohartaraztea. Askok errespetuzko jarrerarik ere ez dute.

  Saltzailea bertakoa izatea. Herrian erosi ezin diren produktuak , bertan erosi ahal izatea. Harategi bat, banketxe bat.

  Supermerkatuan erdaraz hitz egiten dute, saiatuko beharko ziren gutxieneko hitz batzuk, agurrak etab. euskaraz. Udaletxeak web orri bakar batean erakustea denda eta zerbitzu guztien zerrenda

5.

Astigarragako herritarren merkataritza-gastu potentziala

Astigarragako 19 eta 44 urte bitarteko gazteek, guztira, 9,5 milioi euro inguruko merkataritza-gastua egiten dutela estimatzen da. Estimazio hauen arabera, horietatik erdia pasatxo kanpoan egiten da (% 53,6); heren bat pasatxo herrian bertan (% 35,9); eta % 10,5 inguru, aldiz, internet bidez.

Produktu-motaren arabera, Astigarragako gazteen merkataritza-gastu osoaren % 59,6 janarietara bideratzen dutela estimatzen da; % 26,1, bestelako produktuetara; eta % 14,3 arropa eta oinetakoetara.

105. grafikoa. Astigarragako 19 eta 44 urteko bitarteko gazteek egindako gastuaren banaketa, gastua egiten den tokiaren arabera (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

106. grafikoa. Astigarragako 19 eta 44 urteko bitarteko gazteek egindako gastuaren banaketa, gastua egiten produktu-motaren arabera (%) |



Iturria: Siadeco, 2024.

Produktu-mota bakoitza aztertuz gero, elikagaiak herrian bertan erosteko joera handia dute adin honetako astigartarrek: estimazioen arabera, janarietara bideratutako % 57,8 bertan gastatzen da. % 41,9k egiten du ihes kanpora, % 0,4 besterik ez da elikagaiak erosten interneten gastatzen dena.

Arropari eta oinetakoei dagokienez, hamar eurotik zazpi kanpoan uzten dira (% 70,9); % 38,2 internet bidezko erosketetara bideratzen da; eta % 1,1 besterik ez da geratzen herrian –eskaintza urria dela-eta, batik bat–.

Azkenik, gainerako produktuak erosten (informatikakoak, liburuak, altzariak, drogeriakoak, etxetresna elektrikoak, etab.), bereziki, kanpoan gastatzen dute dirua astigartar gazteek, % 71,1 bideratzen dute halako produktuak herritik kanpo erostera. Bigarren dago internet: produktu-mota hau erostera bideratzen den gastu osoaren ia laurden bat hartzen du (% 23,9). Azkenik, herrian geratzen da gastuaren % 5.

Gastua non egiten den kontuan izanda, Astigarragan bertan egiten den gastua ia bere osotasunean janaritara bideratzen da (% 95,9). % 3,5 bideratzen da bestelako produktuak erostera (liburuak, informatikako produktuak, altzariak, etxetresna elektrikoak, etab.). Eta gainerako % 0,4 besterik ez doa arropa eta oinetakoak erostera.

Herritik kanpo ateratzen den diru-kopuruaren ia erdia bideratzen da elikagaiak erostera (% 46,5). Heren bat inguru da bestelako produktuak kontsumitzera bideratutakoa (% 34,6), eta ihes egiten duen ia bost eurotik bat arropa eta oinetakotan gastatzen dute Astigarragako gazteek (% 18,8).

Azkenik, interneten, batez ere, bestelako produktuak erosten dira (informatikakoak, kiroletakoak, liburuak...), ia bost eurotik hiru doaz horretara (% 59,7). Internet bidez gehien erosten den bigarren produktu-mota arropa eta oinetakoak dira (% 38,2). Eta astigartarrek ia ez dute janaririk erosten bide horretatik (% 2,2).